



## Eko4 taldearekin diska berriaz

03

«La columna vertebral» izeneko diska atera berri du Doneztebe, Donamaria, Elizondo eta Leitzaoko sei kidek osatzen duten Eko4 musika taldeak.



## Gehiago birziklatu, baita kontsumitu ere

04

Birziklatzea zeinen garrantzitsua den jabetzeko, «Ikasi birziklatzen, zure esku dago» kanpainarekin jarraitzen dute Bortziriak, Baztan eta Malerrekan.

2007ko otsailaren 1a • XXVII. urtea  
[www.ttini.net](http://www.ttini.net)

28

KOTETO EZKURRA ETA JULEN SAN MIGUEL

# Binakako txapela Doneztebera

2006ko FAUSTINOREN TXAPELKETA

# BORTZIRIETAKO 1. PIROPO LEHIAKETA

## EUSKAL HERRIKO 3. PIROPO LEHIAKETA

### nonorenzate

Lehiaketan parte hartu ahal izanen dute 18 urte bitarteko gazteak

### gaia

Lehiaketaren gaia EUSKARAZKO PIROPOA izanen da

### aurkezteko modua

Piropoak otsailaren 19a baino lehen jasoko dira [www.aisia.net](http://www.aisia.net) web orrian

### sariak

Bortzirietako piropo onenarentzako saria: Gorlizko Aterpetxean 4 lagunentzako egonaldia. Bortzirietako piropo guztiek Euskal Herriko 3. Piropo Lehiaketan parte hartuko dute eta bertan banatuko diren sariak jasotzeko aukera izango dute; Gorlizko aterpetxean 8 lagunentzako egonaldia, liburuak, CD-ak, kamixetak, jokoak...

### irratiratsaiga

Bildutako piropoekin eta parte hartzaileekin saio berezia egingen dugu Xorroxin Irratian.



Antolatzaileak Laguntzaileak Leioaga Ikastola/Tipi-Dria Institutua/ Xorroxin Irratia

# INAUTERIETAKO

## BIDEOAK ETA

## DVD AK SALGAI

# 948 63 54 58



## DATUAK...

- Doneztebe, Donamaria, Elizondo eta Leitzako sei kidek osatzen dute Eko4 taldea, eta euren musika metala bezala definitzen dute.
- 12 kantuz osatutako "La columna vertebral" izeneko diska atera berri dute. Beraiek ekoitzi eta editatu dute lana. Gor disketxea arduratuko da banaketaz.
- Euskal Herriko hainbat txokotan ez ezik, kanpoan jotzeko aukera ere izanen dute. Katalunian eta Alemanian, esaterako.



Eko4 Musika taldea

UTZITAKO ARGAZKIA

ELKARRIZKETA

# «Musika gogorra transmititu nahi dugu, baina bakoitzak ezberdin jasoko du»

Joseba URKIOLA

## Noiz jaio zen eko4 taldea?

Eko4 taldea, Doneztebeko hirukote baten nahiak beteaz 2000. urtean jaio zen. Gainera hasiera hartan, hirukoteak bestelako izen bat ezarri zion taldeari, Tomahawk. Denborarekin taldea aldatuz joan da eta izena aldatzeaz gainera, taldekideen kopurua ere aldatu da. Gaur egun, 6 pertsonen osatzen baitugu Eko 4 taldea.

## Eko4 taldearen musika entzutean, zer nolako musika entzun daiteke?

Guk egiaz musika gogorra transmititu nahi dugu, baina norbanakoak gure musika entzutean zer jasotzen duen hori beste gauza bat da. Jende askok guk egiten duguna, musika gogor eta intentsotzat hartuko du, beste batzuei, berriz, puntu melodiko batekin eginikoa dela irudituko zaie. Egonen dira beste batzuk, gure musika soinu hutsa dela esaten dutenak edota musika suabea dela iruditzen zaienak. Horixe da artea den kontzeptu zabal horretatik gehien gustatzen zaiguna, bakoitzak bere interpretazioa ematen diola eta denek balio dutela.

**Zein dira zuek erakitzen duzuen**

## «Denborak margotuko du gure etorkizuneko koadroa, eta guk atzera begiratzuz, koadro hobeak margotzen ikasiko dugu»

### musikaren oinarri eta helburuak?

Gure benetako helburua, dudarik gabe, barneko sentimenduak askatzea da. Musika konposatu eta jendearen aurrean aurkeztea oso berezia baita eta une batez behintzat, libre sentiarazten zaitu. Oinarrian, metala da eta benetako berezitasuna zein den jakin ez arren, argi daukagu musika bere osotasunean berezia, desberdina eta konplejurik gabe egindakoa dela.

### "La Columna Vertebral" izeneko diska atera berri duzue. Zer moduz doaz diskaren hastapenak?

Hasteko esan beharra dago oso pozik gaudela, Gor disketxea ari baita diskaren banaketa egiten eta hori nahiz eta jendeak ez ikusi, oso garrantzitsua da. Oso ederra da diska konposatu eta ateratzea, baina hori guztia egin eta inork ez badizu banatzen, nola lortu daiteke geuk egindako lan hori Euskal Herriko txoko guztietan ego-

teko aukera lortzea? Hastapenak ongi doazkigula esan genezake, baina jendeak gero eta musika gutxiago erosten du eta hori antzematen da.

### Eta emanaldi aldetik, zer moduz zabilzate?

Orainarte Doneztebeko Ekaitzan, Iurren, Leitzako Torrean, Sorluzen, Leikunberriko 31 aretoan... bezalako lekuetan jotzeko aukera eduki dugu. Orain heldu diren egun eta asteetarako data gehiago lotzen ari gara. Aipatu, Katalunian eta Alemanian jotzeko proiektuak ere baditugula.

### Zeintzuk izango dira heldu diren aste eta hilabeteetarako, zehaztuta daukazuten emanaldiak?

Martxoak 3an Tolosako Bonberenean joko dugu. Beste leku batzuetan berriz, jotzeko aukera eduki ahal izateko txanda itzaroten ari gara.

### Nola margotzen du Eko4 taldeak etorkizun hurbil bateko koadroa?

Ba eskenatokian dena ematen eta kontzertuak egin eta eginez. Denborak margotuko du gure koadroa, eta guk, atzera begiratzuz, hurrengorako koadro hobe bat margotzen ikasiko dugu.



ARGAZKIA: J. IRIGOIEN

Etxeko hondakin berezien bilketa egiteko herriz-herri ibiltzen da Federico Lournaga, kamioi berezi batekin.

HONDAKINEN KUDEAKETA BORTZIRIAK, BAZTAN ETA MALERREKAN

# Birziklatze maila igo bada ere, gero eta gehiago kontsumitzen da

Papera eta kartoia, enbaseak, beirak, etxeko hondakin bereziak, neurri handiko trasteak eta siloetako plastikoak. Urteik urtera gero eta gehiago birziklatzen da, baina oraindik ere aunitz dago egiteko. Gaur egun, pertsona bakoitzak duela 40 urte baino bi aldiz zabor gehiago ekoizten du, gutti goitibeheiti kilo bat egunean. Hartara, birziklatzea zeinen garrantzitsua den jabetzeko, *Ikasi birziklatzen, zure esku dago kanpainarekin* jarraitzen dute Baztan, Bortziriak eta Malerrekan. 2007ko egutegi bat ere banatu dute eskualdeko etxeetan, birziklapenaren inguruko hainbat aholkurekin, zer eta nola birziklatu, eta non eta noiz egin behar den azalduz. Hilabete bakoitzean, eskualdeko argazki eta esaera zahar bana ageri da. Egutegi bakoitzak zenbaki bat darama, eta zenbaki hori ekainaren 30ean egingen den zozketan parte hartzeko da. Sarituarentzat, irailean bi lagunentzako Kanariar Uharteetan aste bateko egonaldia.

## Gurutze PIKABEA

Birziklatze maila gorantz doan arren, horrek kontsumoa hazten ari dela adierazten du. Eskualdeko hondakinen bilketaz Emauseko Traperoak arduratzen dira 2004az geroztik, eta 2006an zerbitzuaren igoera nabaritu dute. «*Bilketa lanak goiti egin du, batez ere traste handiak biltzeko zerbitzuak, eta atez-ateko kartoi bilketak denda eta saltokietan*», dio Federico Lournagak, herriz-herri hondakinak jasotzen ibiltzen den Emauseko langileak. Mahaiak, armairuak, telebistak, sofak, hozkailuak... Handiagoak edo ttikiagoak, «*astean 2.000 kilo inguru eramaten genituen traste handiekin*».

Bortziritako eta Malerreko mankomunitateak eta Baztango Udala ere pozik daude bilketak goiti egin due-

lako, baina «oraindik Europan biltzen duten kopuruetatik urruti gaude», adierazi du Ramoni Olaziregi Bortziriako Hiri Hondakin Mankomunitateko arduradunak. Bide beretik jo du Isidro Herguedas Emausekoak ere: «Oraindik jendearen kontzientziario falta sumatzen da. Eta behar ez den edukiontzietara botatako hondakinak ere ikusten dira». Kolore horia duten edukiontzien kasuan, adibidez, jendeak plastikozkoa den gutzia bertara bota behar dela uste omen du, eta ez da horrela. Hala ere, Nafarroako bertze zenbait mankomunitateekin alderatuz, Baztan, Bortziriak eta Malerreka edukiontzia «nahiko garbiak» direla aipatu du Laur-nagak.

#### HONDAKINAK BEREIZI

Gaur-gaurkoz, birziklatu ezin den gauza andana dago, eta zabor aunitz sortzen da. Herguedasen hitzetan, «gehiegi kontsumitzen da». Emausekoak ere hondakinen bilketa zabala egiten dute, baina badira jasozten ez dituzten gaiak ere. Hala nola, nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenetan sortutako hondakinak, obretan sortzen den zaborra, lantegietan, tailerretan eta biltegietan sortutakoak eta pneumatikoak. Halere, birziklatu daitezkeenak dagokion lekura eramatea garrantzitsua da, hondakinen kudeaketa egokia egiteko.

Pilak, beirak, enbaseak eta paperak zein kartoiak edukiontzi berezietan sartu behar dira, gaika berezi eta edukiontzia kolorearen arabera, berdea, horia edo urdinetan. Hondakin berezien kasuan, berriz, herriz herri ibiltzen da horretarako bereziki egokitutako kamioia. Siloetako plastikoa biltzeko, eta saltoki eta denden kasuan atez-ateko kartoi bilketa egiteko, udal edo mankomunitatetara deitu behar da. Eta traste handiekien Emausekoak Donezteben duten bulegora deitzea aski da, 948 451979ra, eta etxera joanen dira bila, dohainik.

## BILDUTAKO HONDAKINEN KOPURUEN BILAKAERA URTEZ URTE



### PAPERA ETA KARTOIA

	2002	2003	2004	2005	2006
<b>Baztan</b>	177.094	205.330	207.358	246.630	267.142
<b>Bortziriak</b>	333.225	352.127	410.735	480.090	538.122
<b>Malerreka</b>	100.836	124.764	141.913	146.890	168.346



### ENBASEAK

	2002	2003	2004	2005	2006
<b>Baztan</b>	58.442	63.664	67.049	64.461	73.552
<b>Bortziriak</b>	55.036	60.253	65.095	84.803	105.738
<b>Malerreka</b>	21.410	26.609	31.736	40.196	34.996



### BEIRA

	2002	2003	2004	2005	2006
<b>Baztan</b>	253.240	232.905	297.394	274.300	?
<b>Bortziriak</b>	224.751	241.374	265.420	277.224	?
<b>Malerreka</b>	141.262	162.402	158.463	168.843	?


### SUKALDEKO OLIOA - ETXEKO HONDAKIN BEREZIAK (2005)



\* 2005ean, etxeko olioen datuak, Etxeko hondakin bereziak sailaren barnean sartu dira.

	2002	2003	2004	2005*	2006
<b>Baztan</b>	1.170	2.363	-	3.461	5.878
<b>Bortziriak</b>	1.145	1.825	2.475	3.270	4.621
<b>Malerreka</b>	-	-	-	1.710	2.422

### NEURRI HANDIKO TRASTEAK



	2002	2003	2004	2005	2006
<b>Baztan</b>	58.910	73.180	85.145	115.630	5.878
<b>Bortziriak</b>	122.905	150.480	122.885	182.550	185.225
<b>Malerreka</b>	29.675	48.770	64.560	89.390	63.148



### SILLETAKO PLASTIKOAK

	2002	2003	2004	2005	2006
<b>Baztan</b>	0	4.738	11.470	18.332	21.088
<b>Bortziriak</b>	0	278	1.495	1.525	1.235
<b>Malerreka</b>	0	3.470	7.315	13.283	12.322

**ttipi-ttapa aldizkaria**

Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 54 58

Faxa: (+34) 948 63 54 57

www.ttipi.net

info@ttipi.net

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.

**Presidente:** Pello Apeztexea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.

**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Peio Zestau, Arkaitz Mindedia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia eta Sandrine, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Alzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Rakel Amigo, Irtxe Kontsumitzaileen Elkarte...

**Imprimategia:** Gertu.

**Erakunde laguntzaileak:** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**

Hego Euskal Herria	32 e
Espainia	32 e
Sara (edantegia-okindegia)	40
e	
Ipar Euskal Herria	52 e
e	
Europa	52 e
Amerika	110
e	
Baztan, Urdazubi, Malerreka	



**Aldizkari honek Nafarroako Gobernua laguntza jaso du**



**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du**

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Samina airean!

Samina, samina da Bortzirietan barna dabilen airea. Samina norberaren barnean, eta bertzeen begietara begiratuz somatzen dena. Samina eta hitzik ezin errana dugu geure barnean. Zergatik, galde-tzen diogu behin eta berriro geure buruari eta baita aldamenekoari ere, ea hau erantzuteko gai izanen ote den. Baina ez, honek ere ez izaki erantzunik. Zergatia da galde-modua, zergatik hainbertze gazte, errepidea dela, minbizia dela, kartzela dela eta orain mendia. Zergatik bizitzeko gogo duenaren bizitza errotik moztu? Zergatik bizitzeko gogoa eransten duenaren bizitza errotik moztu? Zergatik irri zabal eta xamurra duenari bizitza errotik moztu?

Ez, ez dut erantzunik eta ez dut uste inork duenik, badakigu, ordea, gazteak direla poztasuna, bizitzeko grina, askatasun gogoa eta aitzinera egiteko indarra eta nahia atxikitzen dizkigutenak.

Aitzinera egitea bertzerik ez dugu, eta denon artean eginen dugu, ikustea bertzerik ez baita zeinen bat eginda dauden herri hauetako sentimentuak eta gogoak. Merezki du eta horregatik egin behar dugu aitzinera, nahiz eta iruditu tunelean sartuta gaudela. Izan ere, bida-soako tren xaharreko bidean tuneletan sartuz gero, berehala iluntasuna bertzerik ez da, baina, aitzinera joz gero, hantxe dakusagu argi printza bat, huraxe segika egiten dugu bidea.

Halaxe da bada guk orain dugun erronka, iluntasunari aurre egin eta argi printza agertu arte segi.

Zaila da momentu hauetan, baina nahi nukerle xume hauen bigidez bertzerik ez bada ere, animuak eman, nire berotasuna eskaini eta ahal den neurrian neuk ere tuneletik ateratzeko bulkada eman.

*Herrietako mendi itzultietan izanen zarete gure oroimenean  
Taillon aldera joatean izanen zarete gure oroimenean  
Anayet aldera joatean izanen zarete gure oroimenean  
Pablo Eneako atarian pasatzean izanen zara gure oroimenean  
Kiroldegiaren parean ere izanen zara gure oroimenean  
Beti Gazteko txartela begiratzean izanen zarete gure aldamenean  
Bizirik iraunen baituzue gure oroimenean.*

**Mentxu Peña Lizarazu**

### Erdiz Bizirik

Azken aldian komunikabideetan Erdizko harrobiari buruz hedatu dena eta Udalak, justifikazina justifikatu nahian, egindako prentsaurrekoaren ondoren, hona Erdizen Aldeko batzarraren hausnarketa:

- Erdizko harrobiaren gaia ez da berria, 2001ean hasi zen, eta orain proiektu argi, gardena eta adostutakotzat agertarazten diguten arren, informazio falta eta alderdi ilunak izan dira nagusi. Ez dugu ahortzi behar 2001-2002 aldera, Baztango Udaleko Gobernu Komisia izan zela lehen zundaketak baimendu zituen. Gerora, arazoa

Baztango Batzar Orokorra eraman bazen Erdiz Bizirik taldeak sortutako presioagatik izan zen. Zundaketa hauek baimentzeko Udalak erabilitako argudioa bertako ingurumen baliabideak ezagutzeko nahia izan zen. (Inuxenteak... Erdizko baliabideen baieztapena multinazional bati baino ez zitzaien interesatzen, Udalak erakutsitako jarraitzeekin bere negozioa zabaltzeko aukera ederra ikusten baitzuen).

- Bertzalde, azken aldiko zenbait gertaerak gaia ilundi baino ez dute egin: talde politikoen egindako bilera, sindikatuarekin egindakoak... beti ere hauen edukien eta emaitzen berri eman gabe. Udalaren errauntan, informazioa biltzea dute helburu, gero jendaurrean azaltzeko. Zergatik ez dute azaltzen orainarte pilotutako informazioa? Zergatik ematen dira bilera hauek halako isiltasun eta diskrezioan? Zergatik izaten dugu honen berri *kasualitatez*?

- Argi dago zein den enpresa guztien helburua (batez ere multinazionalena): ahalik eta etekinik haundiena lortzea, epe laburrean. Enpresak azaltzen dituen bertze edozein helburu eta asmo, aitzakiak baizik ez dira Udalaren oniritzia jasotzeko. Oniritzia erdietsita, soilik beraien etekinetaz arduratuko dira.

- Adibide aunitz baidugu inguruan, enpresak hasiera batean adostutakoa betetzen ez dutela erakusten dutenak. Adibide garbiena Erdizkoa. Lehenda-

biziko zundaketak egitea baimendu zenean, Erdiz bere jatorrizko egoerara itzuliko zela adostu zen; kalteak konponduko zirela. Egun kalteek hor jarraitzen dute! Hau itxaropena!!

- Ingurugiroari egingo zaizkion kalteak neurtezinak izango dira. Erdiz Baztango paraje ederrenetariko bat dugu, baita 1.500 azienda bururen bazkaleku. Norratganen dira hauek Erdiz desagertuz gero? Zilegi al da naturaren harribitxi honen lekuan ez-tanda soinuak eta etengabe materiala garraiatzen dabilzan kamioiak sartzea? 11 kamioi pasako dira orduko, ala 22? Dagoeneko nahiko desegina daukagu ingurumena egun horrelako erabaki zentzugabeak hartzeko. Ondorioak guk eta gure ondorengoei larriki jasan-gotitugu. Hau guztia 15-20 urtetarako 30 lanposturen truke? Hausnartu dezagun, faborez.

- Argi utzi nahi dugu Baztango Udala dela momentu honetan proiektu honek aurrera jarraitzearen erantzule bakarra. Aurrera jarraitzen badu, ondorioak konponezinak izanen dira. Ongi gogora dezagun, nor diren egun gure Udaleko ordezkariak, saltsa honetan guztian elkarlanean ari direnak. Horrela, etorkizunean, honen guztia ondoz ondoz sufritzen hasten garenean, argi izan dezagun nor izan diren txikizio honen erantzule.

Erdizko sarraskiaren aurka lan egitera animatzen zaituztegu.

**Erdizen Aldeko Batzarra**

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



DIARIO DE NAVARRA, 2007-01-17

«Udalak dirurik gastatu gabe handituko du industrialdea nahiz eta ondarea galdu, herri-lurra industrialdea bihurtu delako. Ez genuen eskuak harrapatzerik nahi, eta mailegu bat eduki nahi, horrek ekarri dezakeen ziurgabetasunarekin, hartara, eraikitzaileak du ardura eta guk arriskua saihestu dugu». «Ez da ohikoa (...), baina Gobernuak egoera ulertu du». «Sena enpresan eskualdeko bost langile hartu dituzte, eta beste bost hartzea aurreikusi dute».

**Mikel BARAIBAR**  
Aresoko alkatea  
D. Navarra 2007-01-17

«Baztanen ez dugu aitzinako eraikuntzarik, eta oroitarri bakoitzak badu bere garrantzitsua». «Monumentu horien etsairik handienak gu geu, gizakiak, izan gaitzek (...). Megalito hauek desagertzeko arriskurik handiena eskabadorak, aitzurrek eta piktzek eragiten dute». «Katalogoan bilduta 600 megalito daude, baina Baztanen badaude askoz gehiago, zalantzazko 30 daudelako. Eta gehiago ere bai Horien bila arituko gara hemendik aurrera».

**Itziar ZABALTZA**  
Baztango megalitoen aztertzailea  
D. Noticias 2007-01-25

• 11 GALDERA LABUR •

**Albergea, jatetxea eta ostalua dituzu ofizio. Baduzu bertze afiziorik?**  
Bai aunitz. Bertzeen artean, eskiatzea, mendian ibiltzea eta ehiza.

**Zaila da lanarekin bateratzea?**  
Ez, gure egutegiarekin nahiko ongi moldatzen gara, neguan eskiatzeko eta udazkenean ehizara joateko.

**Zein leku bisitatuko zenuke gustura?**  
Leku aunitz, baina bat aukeratzeko-tan Kanada, Quebec.

**Egunerokora bueltatuz, neguan haurrak; udan euskaltegiko jendea... Oporrak noiz?**

Gure tenporada indartsuena martxotik iraila bitartekoa da. Garai horretan bi haur talde izaten ditugu, eta asteburu pasa etortzen den jendea. Udan barnetegikoak eta haurrak. Oporrak irailean hartzen ditugu.

**Nola ikusten dira iñauteriak barraren bertze aldetik?**

Ilbeltzan pasatu zena hor dago, baina iñauteriak heldu dira eta berriz marxa hartu beharra dago eta ilusioz gaude. Itxura ona dute, ekitaldiak hiru egunetan banatu dituzte.

**Aukeran, ongi pasatzeko herriko bestak ala iñauteriak?**

Iñauteriak. Egun gutti dira, baina giro berezi eta herrikoia goa sortzen da.

**Eta lan egiteko?**  
Egun guttiago dira eta aukeran iñauteriak nahiago. Udan bertzela ere nahikoa lan izaten dugu.

**Zer dute Arantzako iñauteriek ber-**

**tzeek ez dutenik?**  
Arantzakoak direla! Arantzan bidea akautzen da, herri berezia da eta bertako giroa ere berezia da.

**Mozorro xuriak ikusten dira orain gehienbat, moztorro beltzak desagertzear ote daude?**

Ez nuke nahi galtzea, badutelako bere erranahia Arantzan. Mozorro xuriak eta beltzak elkar ulertu eta zerbait egin beharko lukete, parodia bat edo.

**Iñauterietan, urteroko bertso afaria Aterpen. Nolako da egun hori?**

Hagitz egun polita izaten da. Arantzan bertsoak betidanik izan du arrakasta eta giro polita sortzen da.

**Bertsolari, moztorro eta herritar saila pasatu da Aterpeko mahaitik. Gogoan gelditu zaizun momentu edo pasadizorik?**

Herritarrak bertso-afarira moztorro-turik sartu eta bertsoariak moztorro-aren azpitik nor zegoen ezagutu zituztenekoa, polita izan zen. Bertze batean, Irujo eta Eulate sartu ziren afarira eta orduan ere giro ona sortu zen.



**Xabi ZUGARRAMURDI**  
*Aterpe albergea eta jatetxekoa*

**bor IRUDI**  
borirudi@telefonos.net

KARTULAK • KAMISETA • SUPRA • TOSKETORAK (baki diran sartu - disimulatuak)  
FOTOKOPIA DIGITALAK • BERRIKETA • TOSKETORAK • PLANGAK  
ENKUADENAZIOAK • PLASTIFIKAZIOAK • PEPETTAK • BULEGO MATERIALA  
DISEÑO GRAFICO • LOGOTIPOAK • FERRUTIAK • IMPRENTA

Financera, 76. Edifizioa Baban II - BERA - Tel-Fax: 948 631 531

**ERREKALDE**

PLASTER KONKRETOAK • ESTAKA  
PINTURAK  
LANTZAK

Ongi pasa bestak!

TFNoa: 948 630 259 BERA

& 948 631462  
Altzate I • BERA

**XIFREI**

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaia
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

**LEGARRA**

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOAK
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOAK

Egunero irekia

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

## ONDAREA

# Kultur ondarea berreskuratu eta zaintzeagatik sariak eman ditu Cedernak

Baztan, Sunbilla eta Berako udalek sariak eta aipamenak jaso dituzte

## Aitor AROTZENA

Cederna-Garalur Elkartek, Leader+ programaren barnean, hirugarren urtez antolatu du Nafarroako Mendialdeko Kultur Ondarea Zaintzeko eta Berreskuratzeko lehiaketa. Helburua Nafarroako Mendialdeko hainbat udalerritan beren ondare kulturala eta arkitektonikoa berreskuratzeko aldera egin duten lana balorizatzea eta saritzea da. Sariak urtarrilaren 17an banatu ziren Petilla de Aragonen, Ramon y Cajalen sortetxean. Hainbat udalerritako 12 proiektu saritu dira. 4.000na euroko zazpi sari eta 2.000na euroko bost Aipamen berezi banatu dira. Saritu guztiak Fernando Martin forjariak egindako eskultura jaso dute.

Eskualdeko udalen zenbait ekimen saritu dira aurtengoan. Honela, Baztango Udalarri Amairuko errota birgaitzeko jarduera proiektuarengatik eman diote



UTZITAKO ARGAZKIA

Petilla de Aragonen urtarrilaren 17an egin zen sari banaketan Baztan, Bera eta Sunbillako udal ordezkariak izan ziren.

saria. Epaimahaiaren ustez, azpimarratzekoa da, bertzeak bertze, Udalak zerbitzuaren kalitatea bermatzen duen, eta errota baliabide berezitu gisa bultzatzen duen kudeaketa eredu bilatu izana. Turistendako eta bisitariendako erreferentia izateaz gain, halako eraikin baten balio etnografikoari eusten zaio.

## AIPAMEN BEREZIAK

Epaimahaiak aipamen berezia egin dio Sunbillako Udalarri, "Auzolana: herriko aizkolari Ramon Latasari eskultura egiteko lan egiteko modua" izeneko proiektuagatik. Aipamen bereziak aintzat hartzen du Sunbillako herriko herri arkitektura balorizatzeke egindako lana, hartarako Sunbillako

aizkolari ezagun horren eskultura baliatuz. Eskultura herriko plazan izanen da ikusgai.

Berako Udalak ere hartu du aipamen berezia, "Berakarri: Bera, muga, lurra, ura, era-kargarria. Eraikinen seinalaztapena" izeneko proiektuarengatik. Pio Baroja hil zela 50 urte igaro direla eta, Berako Udalak ondarea be-

reskuratzeko hainbat jarduera garatu ditu; horien artean aipatu seinalaztapena. Epaimahaiaren aipamen bereziak aintzat hartzen du Berako herriko kultur eta ondare baliabide guztiak balorizatzeke egindako ahalegina.

Epaimahaiaren bertze aipamen berezia "Beroko zubia: Done Jakueren bideko Baztango bidea berreskuratzeko bertze urrats berri bat" izeneko proiektuari eman zitzaion. Urdazubiko Done Jakueren bidearen Lagunak Elkarteak hainbat urte daramatza Turonensis Bideko erromes anitzek mendeetan erabili zuten ibilbidea berreskuratzen. Proiektu honen barnean dago Arizkungo Beroko zubiaren zaharberritzea; Baztango Udalak 2005ean finantzatua, eta esku langile batek egina. Langile honen zubiaren muina errespetatu eta hondatuen zeuden elementuak soilik berri ditu.

**carnha**  
garrantzi handia

27 de Aragoiako 25 bati 1349 630 811  
41000 beraz... www.aaroburak

**Lanchas**

PARKETAK - TARIMAK  
KUTXILLATZEA ETA BERMIZATZEAK  
ESTALDURA OROKORRAK

Bera - Tfnoak 948 630 735 - 407 406 781

Tosilak-Mantelenak-Oheko mandreak  
Eskolako haurren mantelak etab...  
bordatzin ditugu

Herriko bestetarako, kamisetak, eta bluzak  
peña bakoitzaren logotipo eta izenekin  
bordatzin ditugu

Etteri Plz. Berria 4ra eta ikusi bertako erakintza!!! Tel: 948 627 660 - 639 481

**BERA**

Zera inguruak klase guzietako inaktibak  
(zorroa, zintorra, armiarma, kukua...)  
eta errotoi zurgatuz garbitu nahi bodezu,  
deitu! Termite eta Pipien tratamenduak

**GOIKO** Industria Garbitzearen Produktuak

Tel: 948 629 507 • Zabal. 40 A • BERA

**Zalain**  
jateetxea

Hostalari  
14 logela,  
bainu eta  
brakiri

Zalain 10 • 71 Brakiri  
Bera - Nafarroa



**BERA**

## 3.727 biztanle, inoiz baino bizilagun gehiago zituen urte hasieran herriak

Familia eta lana uztartzeko ituna sinatu dute herriko hainbat eragilek

**Amaia eta Ainhoa**

Espainiako Estadistika Institutuak argitaratu dituen datuen arabera, 2006an, lehenbiziko aldiz, Berako Udalerrriak 3.700 biztanle erroldatuen muga gainditu du, eta 3.727ra ailegatu da. 2005eko urtarrilaren 1ean, 3.666 biztanle zituen Berak, eta urte bat beranduago, 2006ko urtarrilaren lehenean, 3.727. Hortaz bada, biztanle kopuruak 61 pertsonetan egin du goiti azken urtean, %1,66. Orain arteko muga guztiak gainditu, eta lehenbizikoz 3.700 biztanle baino gehiago ditu herriak eta gizon eta emakume kopurua pare-parean dago: 1.864 emakume eta 1.863 gizon.

**Herriko Etxea moldatzeko obraren kontratazioa hutsik**

Joan den azaroaren 15ean Udalak Herriko Etxeko obra moldatzeko kontratazio espedienteari hasiera ematea erabaki zuen. Dagokion iragarkia Nafarroako Kontratazioaren atarian jarri eta behar den epea pasa ondoren ez du inork eskaintzarik aurkeztu. Beraz, pro-



ARGAZKIA: GOIKO

**Agerra Mendi Taldearen eskertza**

Berako Agerra Mendi Taldeak eskerrak eman nahi dizkie «gure mendizaleak zendu eta ondoren Beran eta Lesakan egin diren ekitaldietan parte hartu duzuen mendizale eta bestelako lagun guztiei. Mila esker».

zedura negoziatu egoikiaren bidez kontratu hau esleitzeko behar diren gestioak egingen ditu Udalak.

**Asmoz Fundazioaren ikastaroak**

Udalak Eusko Ikaskuntzarekin duen hitzarmenari esker, Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioak antolatutako ikastaroetan %15eko deskontua izanen dute beratarrek. Online ikastaroak eta presentzialak emanen dira eta deskontua denetan

aplikatuko da, on-line ikastaroetan zein presentzialetan. Hiru on-line ikastaro ezberdin emanen dira: Proiektuen Zuzendaritza (proiektuen zuzendaritza kudeaketa diziplina da. Ezagutza, trebetasun, teknika eta harraminta batzuen ezagutzan oinarritzen da, proiektuen erredakziorako), Gizarte bitartekaritza (ikastaroronek gizarte gatazkei aurre hartzeko erantzun hobeak eta efektiboak lortzeko tresnak erakusten dizkie ikasleei) eta Linguanet

(lan munduko hizkuntza plangintza ikastaroa da). Ikastaro presentzialak, aldiz, Ingurumen eta arkitektura akustika (ikastaroa otsailaren 26tik martxoaren 2ra luzatuko da, 25 ordukoa), Erradiazio elektromagnetikoak eta osasuna (Otsailaren 26tik martxoaren 30era, 25 ordukoa) eta Efizientzia energetikoa argiteri publikoan (maiatzaren 7tik 11ra, 25 ordukoa) izanen dira. Ikastaro hauek izena emateko, matrikularekin batera, Beran erroldatua zaude-

naren agiria aurkeztu behar duzu (Udalan eskatu edo 012 telefonon), eta automatikoki egingen dute deskontua.

**Familia eta lana uztartzeko ituna**

Berako hainbat gizarte eragilek Lesako Herriko Etxean lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko itun mankomunatu sinatu dute. Berako Udala, Ricardo Baroja Ikastetxea, Toki Ona Institutua eta Uxo emakume Taldeak egin dute bat bertzeak bertze. XXI. mendeko erronka nagusia emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasuna da. Berdintasun formala ordenamendu juridikoetan jasota dago baina, herriarren arteko berdintasun erreala hitz egitea eragozten duten jarduerak aldatzea eskatzen duten diskriminazio modu aunitz dago. Gizartearen garapena eta kohesia lortzeko gaioetako bat berdintasun erreala erdiestea da. Horretarako konpromisoak hartu behar dira eta sinatu berri den itun honekin eskualdeko eragileek berdintasuna lortzearen alde lan egingen dutela adierazten dute.

**ANSONEA**  
Ostatua-Jatetxea  
Egunerikoko menua eta  
asteburutarikoko menu bereziak  
Terraza estalia eta Ziberkalca  
Fonon Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
abokatua  
© 948 630 763 Alzate, 17 - BERA

**LABEZAR**  
Tel: 948 631 076 - BERA

## LESACA

# Saneamendu sareko lanak egingen dira Otsango, Nabaz eta herrian

Miloi bat euro baino gehiagoko aurrekontua dute

**Aitor AROTZENA**

2005-2008 urteetako Toki Azpiegituretako planean sartzen diren saneamendua berritze-ko borts obra finantzatzea onartu zuen aho batez azaroaren 24ean egindako batzarrean. Azpiegitura egokitzeko lan hauek aitzinera eramateko 1.050.000 euro gastatuko ditu Udalak. Hauexek dira egin beharreko lanak: Otsango auzoko hegoaldeko hegalean saneamendua berrituko da 237.000 euroren truke. Nabaz auzoan ur beltzen saneamendu sarean moldaketak egingen dira. Lehen fase horrek 320.000 euroko aurrekontua izanen du. Gainerako hiru obrak Onin erreka bazterrean egin beharrekoak dira. Antoiu karrikan erreka eskuin aldeko ur beltzen saneamendua berrituko da eta Aceraliaren aitzinean gauza bera. Bukatzeko, beti ere fabrikaren ondoan, baina ezker bazterrean, hor ere ur beltzen sare berrituko da. Hiru obra hauek 492.000 euroko kostea izanen dute, lehenak 141.000 eurokoa, bigarrenak 171.000 eurokoa eta azkenak 180.000 eurokoa. Bertzalde Frain au-



ARGAZKIA: GOIKO

**Erromeri giro ederra izan zen San Antonen**  
Bisitari ugari bildu zen urtarrilaren 21ean Endara auzoan, San Anton eguna ospatzera. Goizeko euriak ez zituen animoak moteldu eta herritik ez ezik, Bortzirietatik eta Gipuzkoa aldetik jende aunitz joan zen oinez, bizikletaz, zaldiz eta autoz. Goizeko mezetan tiki gelditu zen San Anton baseliza eta dantzariak ere plaza bete zuten.

zora edateko ura banatzeko proiektuaren lanen lehen fasea lehiaketara aterata da. 319.443 euroko aurrekontua du, eta eskaintzak otsailaren 19a baino lehen aurkeztu beharko dira Herriko Etxean. Nafarroako Gobernuak 92.955 euroko laguntza onartu berri du proiektu honetarako. Gisa berean, herriarena argitzeko egin beharreko lanen bigarren fasea ere lehiaketara aterata berri da. 262.922 euroko aurrekontua du eta Iruñetik

183.266 euroko subentzioa ailegatuko da. Eskaintzak otsailaren 12rako aurkeztu beharko dira Herriko Etxean.

## Francisco Jabier Irazokiren liburua

Azken 14 urte hauetan Parisen bizi den Francisco Jabier Irazoki idazle lesakarrak bere 4. obra kaleratu du «Los Hombres intermitentes» izenburuarekin. Poema bilduma horretan, bere biziko autobiografia egiten du, Le-

sakako haurtzaroko bazterretatik Pariseko hiriko ingurumenera. Prosan idatzia bada ere obra guztiz poetikoa da.

## Santa Ageda bezpera

Igande honetan, otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera ospatuko da. Azken urteetako ohiturari eutsiz, 17:00etan abiatu eta karrikaz karrika eskean ibiliko dira Tantirumairu ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoak, Trikitixa taldearen laguntzarekin.

## PERTSONAIA

Iker TAINTA

## Profesioletan debuta egingen du herrian otsailaren 10ean

Joan den urte akabailan Mister Lur eta Nafarroako Mister Lehiaketan Mister Simpatia izendatu zuten Iker Tainta Noble lesakarra. Orain, bere kirol ibilbidearengatik ekartzan dugu lerro hauetara. Izan ere, otsailaren 10ean egingen du profesioletan debuta pilotariak, Garfe enpresaren eskutik. Gainera, herrian eta herritar bat gibelean lagun duela jokatu du lehen partida hori: Jexux Mari Almandozekin batera, Altzugarai baztandarra eta Aranburu oiartzuarraren kontra ariko da. 17:00etan hasiko da jaialdia, pilotari gazte txoen arteko bi partidekin eta gero, profesionalen txanda izanen da. Iker Tainta Erreka taldean aritu da azken urteotan. 2005ean, El Cortijoko txapelketa irabazi zuen Logroñon, iaz Añorgako finalean binaka eta Nafarroako lehen mailako txapelketan aritu zen.

**TALLERES BERRIZAUN**  
GASOLINERA LESACA  
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA  
Tfnos.: 948 63 74 60 • 31770 Lesaca

**XATURETXEA**  
ZAZPI  
JATETXEA  
T: 948 637 027 - LESACA

**IRU BIDE**  
Energia Aske  
BERRAZAUN, 3 - LESACA  
Tel: 948 637 127

**BOZZAUBO**  
JAVIERRENA  
ETX. 10 - BERRAZAUN, LESACA

## ETXALAR

# 6.000 kilo gatz inguru banatuko dira baserrietako bideetan arazorik ez sortzeko

Patxiku Irisarri alkatea izanen da Etxalarko ordezkari berria Bertizen

### Joseba eta Nerea

Berandu bada ere, azkenean sumatu dugu neguan gaudela. Joan den astean ikusi genituen lehenbiziko elurrak eta kazkabarrak, eta hotza nagusi da egunotan. Eguraldi aldaketa honek sortzen dituen arazoei aurre egiteko, 6.000 kilo gatz ekarri ditu Udalak baserritarrei banatzeko. Etxera ailegatzeko arazoak dituztenek Usoa kooperatiban hartu ahal izanen dituzte gatz paketeak. 25 kiloko paketeak dira eta doan banatuko dira. Inoiz ez da horrelakorik egin Etxalarren eta emaitza ona ematen ari dela erran digute Udaletik.

### Ordezkarri berria Bertizen

Urtarrilaren 18an egindako udal batzarrean adostutakoaren arabera, Patxiku Irisarri alkatea izanen da herriko ordezkari berria Bertizko Partzuergoan. Herri Taldeak azken urteotan udaleko ordezkari



ARGAZKIA: EGOITZ OLAGARAI

### Hamalau gazte sendotza egin zuten

Joan den urtarrilaren 14ean 14 lagunek egin zuten sendotza, 1988 eta 1989. urtean sortutakoek. Hauexek dira: Xabier Etxarte, Aintzane Olagarai, Amaia Elizalde, Andoni Danboriena, Jurgi Berrueta, Julen Maia, Garazi Remon, Saioa Otazo, Lorea Arangoa, Loinatz Iribarren, Jaione Irigoien, Gaizka Gallardon, Aitor Telletxea eta Maite Olaetxea.

ri Agustin Arribillagak Bertizen egindako lanaren inguruan desadostasuna agertu du eta "berak eramandako jokamoldea ez zaigu baxterez gustatu". Hortaz, "legealdi hasieran emandako konfiantza kentzea" erabaki dute eta hemendik aitzinera

Patxiku Irisarri izanen da ordezkari berria. Erabaki «zeken eta koldar» honekin haserre, EAK Udalean zituen batzorde guziak utzi egin ditu.

### Dantza ikastaroa

Urtarrilaren 19an dantza ikastaroa hasi zuten 16 lagunek. Biga-

rren urtez, Amadeo Arretxea igantziarrarekin arituko dira ortziralero entsaioetan. Beti-ko euskal dantzez gain, dantza berriak eta ko-reografiak ikasiko dituzte. Garbiñe Maia dantza taldeko arduradunak erran digunez, «gustura eta indarberrituta ha-

si dugu aurtengo ikastaroa. Joan den urteko ia guztiak segitzen dugu eta berriren bat ere hasi da. Kezkarik handiena mutilekin izaten dugu. Hiru mutil baka-rrik ditugu baina momentuz, hiruek segitzen dute". Andremariak arte, segituko du ikastaroak.

### Inauteriak prestatzen

Oraindik bi aste gelditzen dira inauterietako baina dagoeneko prestatzen hasiak dira herriko tikienak. Urtero bezala, antzerkiak eskainiko dituzte Ortzegun Gizenean eta entsaioetan ari dira eskolan. Otsailaren 15ean izanen da haurren inauteri eguna eta urteroko ohitura segituz, goizean etxez etxe eskean ibiliko dira. Arratsaldean berriz, herri kalejiran, auzoetan antzerkiak eskainiz. Nagusien txanda otsailaren 19 eta 20an izanen da, astelehen eta asteartean.

arropak - maindireak  
mantak - nordikoak  
toallak - kortinak  
alfonbrak  
Bera  
**Goya**  
Albano, 1 - Tel: 948 630 003

MERTZERIA  
*Leñe*  
LENTZERIA  
Tel: 948 637 214  
Donostia Plaza 10 - LEBAKA

**arkitektoak**  
ARKITEKTURA ETA HIRIBIDINTZA  
ESTRATEGIA PROIEKTOK  
URRANTZIO PROIEKTOK  
ETXO BERRITZAK  
NABARRA  
KONSUMITZA  
INFORMAZIOA: 24  
SANTOZO 50 2ºB Euzondo TU 948 581 981

**USOA**  
nekazarri kooperatiba  
ganaduarentzat  
pentsurik egokiena  
Tel: 948 635 214 - ETXALAR

**Javier Manterola**  
Tel: 948 637 214  
Burgineta • gatz • kafeak  
• 429 449682  
Burgineta 4, Lebaika • BERRA

## ARANTZA

# Inauteriak otsailaren 8tik 10era izanen dira, ortzegunetik larunbatera

Ilbeltzaren 20an zuhaitz landaketak egin ziren Ekaitzan eta Bagatxarren

## Nerea ALTZURI

Berriz ere inauterietan murgilduak gaude. Herrikoen txanda otsailaren 8, 9 eta 10ean izanen da. Urtero legez, mozorro zurien kuadrilla (mutil gazteak) biltzetan ari da egitaraua josteko asmoz. Eman digutenaren informazioaren arabera, urteroko hitzorduek ez dute hutsik eginen aurtan ere. Otsailaren 8an, ortzegunean, gosalduta ondotik, eskolara bisita eginen dute. Ondotik, herriko lau auzoetan barna, baserriz baseri puxka biltzen ibiliko dira. Ortziralean, emakumeen eta bertso-afariak batera eginen dira Aterpen. Egun osoan, mozorro zuriak herriko etxeetan barna giroa alaitzen ibiliko dira. Arratsean, afa ondoa girotzeko, Mikel Salaberri soinuariak Herriko Etxeko gorapean dantzaldia eskainiko du. Larunbat arratsaldean, haurren mozorro desfilea eginen da eta meza ondorako aizkora apos-



ARGAZKIA: XABI ZUGARRAMURDI

## 700 pago baino gehiago landatu dira Bagatxar eta Ibintza aldean

Joan den urtarrilaren 20an, larunbat goizean, Ekaitzako Ibintza aldean eta Bagatxar inguruan zazpirehundik gora pago eta pinu landatu zituen herriar talde batek. Lagun aunitz bildu ez bazen ere, zuhaitz kopuru polita landatua gelditu da mendietan. Ekintza garrantzitsua, dudik gabe, gure mendiak soilak gelditu ez daitezten.

tua eta herri kirolak antolatu dituzte. Arratsean, Jalisko Band taldeak, gorape inguruak bere musikarekin astinduko ditu. Beraz, aurtan ere inauterietako guziaz prest da.

## Mendizaleak gogoan

Urte hasierako berriak ez dira xamurrak izan Bortzirietan. Urteko lehen bi asteburuetan berri latzak hartu ditugu Pirinio aldetik. Unai

Etxepare, Luis Mari «Loro» Pikabea, Xabier Zubietta eta Xabier Saralegiren heriotzek hunkitu dituzte bazterrak, baita gure herrian ere. Aski ezagunak ziren lau gazteak eta herrian bi-

zi zen Xabier Zubietta, are ezagunagoa herri-tarren artean. Bi urtetik behin egiten den Mendi Itzuliaren antolatzaile eta bultzatzaile nagusietako bat izan zen Zubietta, herriko bere lagunak eta berexiki mendi itzulilko bere lagunaren izenean bertso hau:

*Piriniotik  
albistea gordina  
Arantza utzi duzu  
malkotan blai egina  
elurraren zuria  
zeruaren urdina  
tartean Taillonon  
sortu zaigu samina  
mendizale petoa  
arrokaren berdina  
gogoan dugu zure  
ausardia eta grina  
mendi itzulietako  
antolatzaile fina  
aurtengoan ere Zubi,  
mendian gainaz gaina  
oroituko zaitugu  
gure artean baizinan.*

## Zuzenketa

Aitzineko alean Arantzako kronikan argitaratutako argazkia Jaime Iturriak utzitakoa zen.



## IGANTZI

# Etkez etxeko eskearekin ospatuko dituzte inauteriak gazteek otsailaren 9 eta 10ean

Patxi Irazoki eta Xebastian Antxordokiren arteko apostuak ikusmin handia piztu zuen

### ttipi-ttapa

Otsailaren 9 eta 10ean, ortziralean eta larunbatean ospatuko dira aurten inauteriak Igantzin. Gazteek, etkez etxeko eskeak egiten dituzte, ortziralean Berizaun auzoan eta herrian, eta larunbatean, Irisarri, Unanu eta Frain aldeko baserrietan. Mozorroek eta musikariek alaitasuna eta umorea hedatuko dute auzoz auzo. Azkeneko urteetan plazan mozorro-ikuski-zunen bat antolatu dute gazteek, urtero-urtero hagitik arrakastatsua suertatu dena, baina aurtengoan seguruenik halakorik ez dela izanen aipatu digu gazte batek. Dena den, larunbat arratsean musikarik ez da faltako plazan, inauteriak ongi akautzeko.



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

### Xebastian Antxordoki eta Patxi Irazokiren arteko apostua

Urtarrilaren 20an apostu ikusgarria egin zuten Patxi Irazokik eta Xebastian Antxordokik. Biek, Lesakako zubitik, Bereautik abiatu eta Piedadeko gainerako ibilbidea egin behar izan zuten, Xebastianek bizikletaz eta Patxik lasterka. Zelaian kasik hiru minutuko abantaila atera zuen Xebastianek, baina ez zen aski izan, Patxi 20 segunduko abantailarekin ailegatu baitzen Piedadera. Zorionak bie!

1951tik lentzeria-etxea

## Casa Cambra

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

### MERKEALDIAK

albornoak • mantelak  
edredoi nordikoak • kuxinak  
che estalkiak • maindireak  
toailak • edredoi-azal nordikoak

## BORTZIRIAK

«Mundua Bortzirietan»  
liburuxka banatu dute

Immigrazioarekin zerikusia duten gaiak landu dituzte Bortzirietako Gizarte Zerbitzuek eta Euskara Mankomuniateak elkarlanean

## ttipi-ttapa

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuek eta Euskara Mankomuniateak immigrazioarekin inguruko euren azken lana kaleratu dute: «Mundua Bortzirietan» esku-orria. Urtarrilaren 22tik 26era bitartean etxez-etxe banatu zuten, asmo argi batekin: «Gure herrietan bizi direnek immigrazioaren fenomenoaz kontzientzia hartzeko», dio Patri Arburua Bortzirietako euskara teknikariak. Horretarako, bortziriarrak egun batean immigrante izan zirela hartu dute abiapuntu.

Bortzirietan 10 lagunetik 1 Euskal Herriatik kanpo etorria da, 873 la-

gun inguru guzira. Egoera ekonomiko, sozial edo politiko hobe baten bila etorri dira gehienak. Bizi kalitate oparo bat desiatu arren, aunitzek eskubideen urraketa haundiak pairatzen dituzte, baita Bortzirietan ere. Hori dela eta, herritarren laguntza eskatu dute liburuxkaren egileek: «eskubide guziak pertsona guzientzat».

Igor Portu Bortzirietako gizarte langileak bortz herrietako etorkinen datuak eman dizkigu: «Beran bizi dira etorkin gehienak, 521, Berrako herritarren %14. Etxalarren 78, %9 pasatxo, eta Lesakan 250, %9 pasatxo». Datuek kanpotar gehienak Eu-



Bortziriarrak immigrazioaren fenomenoaz kontzientziazteko banatu dute esku-orria etxez-etxe.

ropar Batasunetik datozela adierazten dute, estatu espainol eta frantsesetik etorritakoak barne. Hego eta Ertamerikatik etorriak, berriz, 180 inguru.

Etorkinen aunitzasan da liburuxkaren egileek azpimarratu duten bertze ezaugarria: «hainbat kultura, ohitura, hizkuntza eta erlijioen jabe den jendea da goelako, baldintza ezberdinetan etorriak». Egoera horretan, etorkinei buruz mintzatzeko «ikuspegi murrizak

eta topikoak alde batezera uzteko» eskatu dute, «esperientzia eta istorio ezberdin aunitzez ari garelako».

## GUK HAIENA, HAIEK GUREA

Elkar ezagututa elkarrekin bizitzea errazagoa izanen dela iriztita, euren kultura eta hizkuntza barneratzeko eginahalak egin behar ditugula adierazi dute liburuxkan. Hain zuzen, «horixe delako haien ere gureaz interesatzeko bidea». Bortziriarrak im-

migranteena barneratzeaz gain, «gure hizkuntza eta kultura minorizatua berreskuratu eta normalizatzeko prozesuan parte hartzeri gonbidatu beharko genituzke etorkinak». Bortziriarrak aunitz garai batean etorkinak izan zezalako, eta egun kanpotik jende andana etortzen delako, hainbat lekukoren testigantza ere bildu dituzte liburuxkan, Euskal Herrian zein kanpoan jaiotakoena. Helburua, elkarrekin bizitzea ikastea.

**J. RAMOS**  
zolak akutzilatatu eta barnizatzen ditut.  
Sakelekoa: 637 836 023 • LESAKA

**ZUBIONDO JATETXEA**  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TLF 948 625 472  
sagardotegia jatetxea sagardotegia

HESSING  
ESTREMO  
EDENTEGIA  
CAFÉ DE LA MAIRIE  
T: 0549542319  
Mozzi eta Vainilla  
SABA

**APARAN, S.A.**  
BIBIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta berrizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
DONEZTEBE

**PAGOLA**  
EMBUTIDOS  
artesanoj desde  
1940

Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

## DONEZTEBE



UTZITAKO ARGAZKIA

Espainia Iparraldeko Sektorearen barrenean dominak irabazi zituzten Errekako kirolariak ageri dira argazkian, Oskar Mindegia irakaslearekin.



### Eguberrietako sariak banatu ditu Doneztebarrak komertziantek elkarteak

Doneztebarrak merkatarik elkarteak 2.000 eurotan baloratutako produktu lotea zozketatu zuen Eguberrietan. Zenbaki saritua 28.848a izan zen eta Donamariako Javier Mindegia eraman zuen etxera. Goiko argazkian, eskuinaldean, Antonio Artaco, Artaco ileapaindegi eta loteria eta apustu dendakoa ageri da, merkatarik elkartearen izenean, Javier Mindegiari saria ematen. Bertalde, eskolako haurren margo erakusketako saria Naiara Aizpuru eta Maialen Mitxeok irabazi zuten. Eskuineko argazkian, Maite Zozaia, Txirrista dendakoa, merkatarik elkartearen izenean, sarituei 50 euroko balea ematen. Botoa eman zutenen artean 100 euroko bertze balea zozketatu zuten eta Elena Eratsunek eraman zuen.



## Karmelo Rekarte da Elkartasuna Kasinoko presidente berria

Elkarteko kide izateko Donezteben jaio, bizi edo errolatu behar da

### ttipi-ttapa

Casino La Union edo Elkartasuna Kasinoko urteko batzarra egin zen urtarrilaren 21ean. Ohiko gaiak aipatzeaz gain, zuzendaritza batzordearen erdia berri zuten, eta elkarteko estatutuei buruz hausnartu.

Hiru kide sartu ziren zuzendaritza batzordean, Karmelo Rekarte

presidente postuan, Jose Luis Arotzena idazkari postuan, eta Joxe Mari Urroz batzorde kide baten postuan.

Bere garaian kideen kopurua mugatzea proposatu bazen, joan den igandean bildutako kideak neurri hori ez onartzea erabaki zuten, baina Kasinoko kide izateko, hemendik aitzine-

ra Donezteben sortua, bizi edo errolatua izan beharko da.

Aitzinera begira, otsailean ohiko barrikotea eta maiatzean kideen bazkaria antolatze-ko asmoa dute. Pala txapelketa baten antola-

tzea ere aipatu dute baina kasu huntan ez dute deus erabaki.

### Errekako judokak bikain

Errekako judo taldeak ezin hobeki hasi du urtea. Oskar Mindegiak

zuzentzen duen taldeak bortz domina jaso zituen urtarrilaren 7an jokatutako Espainia Iparraldeko Sektorean. Horietatik lau judoek Espainiako Txapelketako finalean parte hartuko dute.

## ARTEKARI TALDEA

**ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA**

<ul style="list-style-type: none"> <li>☞ Langile autonomoak</li> <li>☞ Nekazariak eta mendi langileak</li> <li>☞ Nominak eta Aseguro Sozialak</li> <li>☞ Lan-Kontratutarako laguntzak</li> <li>☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>☞ Diru-laguntza ezberdinak</li> <li>☞ Kontabilitateak</li> <li>☞ IVA eta IRPF</li> <li>☞ Errenta aitortpenak</li> <li>☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak</li> <li>☞ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak</li> </ul>
--	---

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittinio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 404  
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

## BEHETIK

aulki jasotzaileak

☎ 943 372 870

## ITUREN

# Nafarroako Gobernuak Iturengo eskolako ordezkariak hartuko du otsailaren 8an

Eskolako arazoari lehenbailehen konponbidea ematea nahi dute

## Arkaitz MINDEGIA

Herriko eskolaren arazoari irtenbide bat aurkitu nahian, Iturengo alkate, idazkari, guraso, ikasle eta irakasleak Iruñera joan dira heldu den ortzegunean, hilaren 8an. Nafarroako Gobernuak ordezkari batekin bilduko dira konponbide bat adosteko eta 10:00etan prentsurrekoa eskainiko dute. Iturengo ordezkariak barnean dagoen bitartean gaineratikoei bi orduko egonaldia egingen dute Gobernuak egoitza atarian.

Hasiera batean, urtarrilaren 24an joateko akziren, baina elurra zela eta, otsailaren 8a arte atzeratu dute. Egun eskola Herriko Etxean kokatua dago, eta ez diti indarrean dauden se-



UTZITAKO ARGAZKIA

## Malerreka bazterrak zuritu ditu elurrak

Bertze hainbat lekutan bezala, gogotik egin zuen elurra Aurtizen ere eta zuri-zuri utzi zituen bazterrak.

gurtasun neurriak errespetatzen. Urtarrilaren erdialdean sute bat piztu zen Herriko Etxeko tximenean, nahiz eta ez zen larria izan. Gobernuak dagozkion ardurak hartzea eta kon-

ponbide bat eskaintzea nahi dute Iturendarrek.

## Erasun eta Rekondo garaile ligaxkako lehen saioan

Urtarrilaren 1ean ha-

si zen 23 urte azpiko binakako urrezko binakako txapelketa. Aitzineko asteburuan Doneztebeko pilotalekuan, Alkizalete II eta Gorriti, Jimenez eta Rodriguezen aurka aritu zen eta bi-

garren saioan Larretxea lehengusuak, Rekondo eta Erasunen aurka. Proba guztietan alde handirik izan ez bazen ere, kolpekako proban ez ezik gainerako lau probetan nagusitu ziren Erasun eta Rekondo. Lan guziaz egiteko 18 minutu eta 59 segundu behar izan zituzten, eta Larretxea lehengusuek, berriz, 20 minutu eta 57 segundu. Zorionak.

## Inauterietako apostua

Larunbatean, 17:30ean herritarren arteko herri-kirol saioa antolatu dute. 23 urte behetikiko gazteak bertzeen aurka. Lehen aldia da inauterietako zaharren afaria baino lehen horrelako zerbait egiten dela eta eskertzen da.

**Pinturas Pikabea Molinera**

**PINTURAK**

Esmalteak • Bernizak • Lasurea urpintura • Margo klase guztiak

BONDEX urpintura • Esmaltea eta pintura plastiko ekologikoa

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina  
10 minututan zuk nahi duzun kolorea

Zalain auzoa, Aceralia fabrikaren parean • BERA  
TEL: 948 630 240 • MUG: 627 622 333

**BEINTZAKO OSTATUA**

948 45 00 14

ORBELA

**ERROTARZAR**

harategia

Bertako produktuenak

Ezlegara, 3 - BERA  
Tel/Faxa: 948 630 088



## SUNBILLA

# Bigarren mendi ateraldia egin dute herriko gaztetxoek

Duela urte batzuk egiten zen mus tximista egiten hasiko dira berriz



ARGAZKIA: VIDAL IBARRA

Urtarrilaren 20an herriko 15 gaztek Saldiaстик Belatera mendi irteera egin zuten.

### Jaione OTXANDORENA

Urtarrilaren 20an herriko 15 gaztetxok mendi ibilaldi batean parte hartu zuten. Bost irteera desberdin antolatuta daude Nafarroa osoko gaztetxoentzat (10tik 16 urte bitartekoentzat), eta gure eskualdetik, Bera eta Sunbillatik joan ziren. Lehen irteeran, Saldiaстик Belaterako mendi ibilaldia egin zuten eta joan den urtarrilaren 20an, berriz, Belatetik Artesiagaraino joan zi-

ren. Hurrengoa otsailaren 24an egingen dute, eta Artesiagaraino joan dira. 15 gaztetxo hauekin batera, antolatzaileez gain, zenbait guraso ere joaten dira irteera hauetara, guztira 150 eta 200 gazte inguru elkartzen baitira.

### Mus tximista

Duela urte batzuk, asteburuetan herriko tabernetan mus txapelketak jokatzaren ziren, bai-

na jendearen parte-hartze eskasa zela-eta tabernekek txapelketa hauek antolatzeari utzi zioten. Aurten berriro hasi nahi du Fonda ostatuak mus tximista antolatzen eta horretarako hitzordua otsailaren 2an jarri du. 22:30ean hasiko da eta ortzilarero errepikatuko da, ordu berean.

### Lapurreta

Urtarrilaren 22tik 23rako arratsean, lapurreta egin zuten Sunbi-

llako Nafarroako Kutzako bulegoan. Dirudenez, eraikinaren atzeko pareta zulatuta sartu ziren lapurrak. Hasiere batean alarmak jotzen bazuten ere, berehala isilarazi zuten lapurrek. Hartara, bizilagunek ez zuten lapurreta izanen zela susmatu, alarmaren akatsa zela baizik. Lapurrek eraman zutenaren datu askorik ez badugu ere, badirudi kaja fuertea osorik eraman zutela.

### Bertso-afaria

Otsailaren 10ean bertso afaria antolatu du Ulibeltzak elkarteak, Mendiluze eta Peñagarikano bertsolariekin, Ulibeltzak elkartearen. Apuntatzeko azken eguna otsailaren 4a izanen da.

### Inauteriak

Tipi-ttapako ale hau idazterakoan inauteriak hasteko puntuan zeuden. Beraz, hurrengo alean emanen dizuegu inauterien berri.

luis cestau baraibar	arkitekto teknikoa	leitza 607204485	lucésba @ msn.com
----------------------------	-----------------------	---------------------	-------------------------

**Ark<sub>b</sub>** arkitektura bulegoa

Eraikuntza  
Hirigintza  
Udal-aholkularitza

Celia Lana Ranz  
Huarte Gozal 7 - 31860 Leitza  
645008478 tel

**ola**  
SAGARDOTEGIA

102 Meaka auzoa  
20304 IRUN  
Tel.: 943 623 130

## TXOTX

denboraldia berria hasi dugu

- \* Astegunetan, arratsaldeko 6,30etatik aurrera zabalik.
- \* Asteburuetan, eguerdian ere zabalik.
- \* 250 lagunendako lekua jarrita.
- \* 50 autorentzat parkina. Autobusak. Klimatizatuak.
- \* Sagardoa bertan egiten dugu, sagarra Irun, Hondarribia eta Zarauztik ekarritik.

**Pitti**  
estabazioak

Tel: 616 513 491

Mendiak eta 34 ZUBIETA

## GOIZUETA

# Umeen heziketari buruz hitzaldiak antolatu dira otsaila eta martxoan

Gaztetxeak kantu afaria antolatu du ostiral honetarako

**Esteban AROTZENA**

Umeen heziketa eta hauek eta gurasoen arteko harremani buruzko hitzaldiek aurreko aldietan lortutako arrakasta ikusirik, gai berezuko hainbat emanaldi berriz antolatzeari ekin diote gurasoen elkarteek, Gizarte Zerbitzuak, "Elkarbizitzaren Planako" kideak, eta eskola-kola berak osatutako lan taldeak.

Hiru hitzaldikoa izanen da aurtengo zikloa eta guztiak eskolako jangelan burutuko dira 15:00etatik 16:30erako ordutegian. Lehenengo hitzaldia, otsailaren 8an, Nerea Zuazuaren esku egonen da «Agresibitatea eta biolentzia; tole-



ARTXIBOKOA

**Gartxot izanen dugu kantari Umore Ona elkarte- an ostiral honetan eginen den kantu afarian.**

rantzian eta errespetuan oinarritutako heziketa" izenburuarekin. Beste biak berriz, Amaia Vazquezek emanen ditu martxoaren 1ean eta

8an (ez 15ean hasieran iragarri zen bezala). "Guraso eta seme-alaberen arteko komunikazioaz" mintzatuko da soziologia ezaguna. Anto-

latzaileek diotenez, aipatutako ordutegi horretan haurtzaindegia martxan egonen da, baina hitzaldietan parte hartzen ari diren gurasoen umeentzat bakarrik.

## Kantu afaria

Umore Ona elkarte- an burutuko den kantu afaria antolatu du Gaztetxeak ostiral honetarako, otsailak 2.

Nafarroako Kantuzale Elkartearen eskutik heldu den «Gazteak kantan» kanpainaren barrenekoa da ostiraleko ekitaldia. Gartxot eta Edorta abeslariak emanen diete hasiera kantu ezberdinei eta afalkideek abestuko dute hauekin batera.

## ORAIN DELA...

### 15 URTE

- 1992ko ilbeltzean jaikin zenez, 107 etxebizitza hutsik zeuden gure herrian.
- Joxe Julian Salaberria hautatu berri zuten Nafarroako Kutxako herriko arduradun gisa aritzeko. 24 urte zituen Salaberriak orduan eta punta-puntako pilotaria zen.
- Abenduaren 28ko Herrikerako martxara 25 herritar joan ziren.
- Ilbeltzaren 10ean bertso-afaria antolatu zen Andoni Egaña eta Sebastian Lizasorekin eta 60 emakume elkartu ziren Umore Onan. Goizeko 7etan bertso- tan ari omen ziren oraindik.
- Kiroletako berria, berriz, Asier Olaizola eta Xabier Berroeta herriko pilotarien eskutik zertorren, Nafarroako jubilenen zapela lortu baitzuten 16 urte zituaztenean.

## ARESO

# Elurpean izan gara azken egunetan

Industrialdeko lantegi baten teilatua erori zen elurrarengatik

**Juana Mari SAIZAR**

Elurra azkenean ailegatu dela, eta nolako! Gogoz bota du eta. Herrian 42 cmko altuera izan du gozo-gozo aritu baita hiru egunetan eta ondoren zer nolako izotzak! Pertsona batzuei atea itxi dizkiete lanera joateko. Leitzako institutoko ikasle-

ek bapo gozatu dute elur- rretan, hiru egunetan jai izan baitute, elurra dela eta autobusa beren bila etorri ez zaielako.

Eluseder industrialdean Burnilan enpresako teilatua elurraren pisuarekin zanpatu eta behera joan da. Eskerrak garabi baten burniak han zeuden eta eutsi



ARGAZKIA: UXUE GOIKOETXEA

**Leitzako institutuko ikasleek hiru egun libre izan zuten, elurraren ondorioz.**

egin zion teilatuari lur- rerraino ailegatu gabe.

## Anartz Olanotxapeldun

Gabonetako pilota

txapelketa Lizarran jokatzen zen eta emaitza ona izan zen herriko pilotari batentzat, Anartz Olanok finala irabazi baitzuen.

Hasiberrien kategorian aritu zen eta ez da irabazten duen lehenengo finala. Urte batean dagoeneko lau kopa bereganatu baititu.

A collage of flowers in various colors (pink, yellow, white) against a dark background. The flowers are stylized and layered, creating a vibrant and abstract composition. The text is overlaid on the lower-left portion of the image.

**LOREAK eta  
LANDAREAK**  
*gehigarria 07*



LOREAK ETA LANDAREAK

*Lorontziak apaintzeko aukera gabela*

Frain Auzoa • LESAKA • 948 637 826

# BAXERRI



- Lorategien zainketa
- Mendiko lanak

616 243 530

# Ituzia

Irudiakintza • Jardineria



**HIDROEREINTZA**

• Irradiak  
• Buztinak  
• Insektizidak

**KIMAKETA BEREZIAK**

Zuhaitzak  
arboles



Zuhaitzak  
arbustos

FERNIN MARTORENA LARRALDE  
Magaleko Auzoa, 32  
01100 Baxerri (Vizcaya)

948 407 214  
948 637 199



## Kalitate oneko lurrak luzatu egiten du landareen bizitza

### Lorontziak, lurra, ongarria

Negu gogorraren ondotik, arreta handia eskaini behar diegu etxe barnea, balkoiak, patioak eta terrazak apaintzen dituzten lore eta landareei, eta lorontzia aldatu edo lurra berritu behar izaten zaie. Izan ere, etxean loreak eta landareak hazten dituenari maiz ahaztu egiten zaio landareen bizitza luzatzeko funtsezkoa dela jaten ematen dien lurra. Landareak ongi egokitzen dira etxe barneko tenperaturetara eta lorontziko espazio mugatura, baina lurrean sartuta daudenak baino lore guttiago eta hazkunde tikiagoa izanen dute. Hala ere, lurrari arreta jarri eta behar dituen ongarriak emanez gero, landare ederrak lortu eta bizitza luzatzea lortuko dugu.

### Ontziz aldatzeko momentua

#### Noiz aldatu behar da landarea lorontziz?

- Hainbat seinale dira, gure landarea lorontzi handiago batera aldatu behar dela adierazten digutenak:
  - Sustraiak lorontzia drenatzeko zuloetatik ateratzen direnean.
  - Ureztapenaren ondorioek gutti irauten dutenean.
  - Lurra zahartuta dagoenean edo azalean zarakarra daukanean.
  - Landarearen goiko aldearen eta lorontziaren artean desoreka dagoenean.
- Landarea aktiboki hazten ari bada, ez transplantarik egin. Horren garapena eten eta lore produkzioa mugatu bait daiteke.
- Transplantatu aurreko gauean, landarea pixka bat ureztatu, eta lorontzi berria garbitu. Buztinezko lorontzi berriak erabili behar badituzu, gau osoan uretan sarturik eduki.
- Landare guztiek ez dute lur mota berdina behar. Espezie bakoitzak ezaugarri bereziak dauzka behar duen lurrari dagokionez: buztin lurra, hondar lurra, lur azidoa edota humusa.





## Ohiko lorategia lorategi ekologiko bihur daiteke

Konplexua badirudi ere, lorategi konbentzionala erraz bihur daiteke lorategi ekologiko. Horretarako, elementu naturalak birziklatu eta organismo kaltegarriak suntsitzen dituzten produktu biologikoak baliatu beharko ditugu, pestizida edo bestelako elementu kimikoetara jo ordez. Horrela, naturaz baliatuz, landare-espezie guztiak harmonian hazteko moduko gune berdea antolatuko dugu.



### Loreak gehiago irauteko aholkuak

Lore eta zuhaixkek loraketa oparo eta iraunkorra izatea ez da ain erreza.

- Korronea dagoen toki batean jarri edo tokiz aldatzean loreak estresa jasaten du eta lorea erortzen hasten da.
- Sustrai mozterakoan kontuan hartu behar da, mantengai guttiago eskuratzen dutela. Holakoetan, ongari likidoekin lagundu behar da arazorik gabe behar dituen substantziak hartu dezaten.
- Ximelduak dauden hostoak kendu behar dira. Prozesu hau egiterakoan txortenetik kendu behar da lorea, gero errezago loratzeko.



# Bonsaien sekretua

Arrakastaren giltzetako bat hemen dugun eguraldia da, zбайдintza egokiak eskaintzen dituena. Hala ere, oinarritzko arau batzuk ezagutzeko komeni da. Bonsai gehienak kanpoko espezieak izaten dira eta itxuraz hauskorak diruditen arren, beren anaia nagusiak bezain gogorrak dira gutieneko zainketa batzuk eskainiz gero.



## Zainketarako aholku orokorrak

Ez da erraza eginkizun orokor batzuk aipatzea, espeziearen arabera mota bateko edo besteko zainketak beharko ditu eta. Hala ere, badira hainbat aholku bonsai guztientzat baliagarriak. Adibidez, udan eguzkiak berotu egiten ditu lorontziak eta komenigarri izaten da lurra goroldioz babestea, sustraien tenperatura asko igo ez dadin. Neguan, leku hotzetan dauden ontziak lurpean sartu edo lastoz estaltzen dira, bonsaiaren lurra ez izozteko.



**Ura:** Behar denean ureztatu egin beharko da bonsaia, goitik behera zipiztinak bota, euria balitz bezala, sustraiak ere ura hartu arte. Bero handia egin badu ontzia uretan sar daiteke, baina ez da hori sarriegi egin behar.

**Ongarria:** Lurra ongarrirituz ematen zaio bonsaiari bizi ahal izateko behar duen elikagaia. Beraz, aztertu egin behar da zein substratu komeni zaion eta espeziearen eta garapeneko momentuaren arabera, komenigarriena aukeratu. Lurrak fisikoki eutsi egin behar dio zuhaitzari eta elikatu, eta ura erraz drenatzea komeni da; halaber, lurrak heze egon behar du, ur gehiegi gabe, zuhaitzari ongari bidez ematen zaizkion nutrigarriak eutsi eta azidototasun eta pH alkalinitasun mailari eusteko gai izan. Hiru osagai horiek ez baditu, aste guttitan zuhaitza hiltzeko arriskua dago.

**Adaxkak moztu:** Adaburuaren formari eustea da helburua. Bakoitzak nahi duen moduan egingen du, baina kontuan izan argiari sustraietaraino iristen utzi behar zaiola.



**ENDANEA HAZTEGIA**

Zatoz loreak ikustera, gustura aterako zara

**Ordutegia:**  
Astelehenebitik larunbatara  
9:00 - 20:00  
Asteburu eta Jai egunetan  
9:00 - 13:30  
Jaizubia Auzoa, 40  
HONDARRIBIA  
Tfnoa: 943 641710  
www.endanea.com

### ENDANEA MINTEGIAK INGURUKO LORE MINTEGIRIK EDERRENA

Fruitondo eta larrosak aldatzeko sasoia  
Larrosak 40 kolore, estilo eta usai ezberdinetakoak  
Fruitondo txertatuak aukeran,  
60 klase ezberdin:  
Sagarra (jatekoak eta sagardokoak),  
udareak, gereziak, muxikak,  
brifoiak, kiwiak...  
Fruitondoak neguan zaintzeko  
xomorroen aurkako produktuak

**OPARIAK:** Zentroak, lore sortak  
etxera, lantegira, ospitalera...  
eramaten dira  
telefonoz eskaera eginda.



## LEITZA

# Aldaketak izango dira farmazien zaintzan

Inguruko herrietan txandaka irekiko dituzte botikak

**Joseba URKIOLA**

Nafarroako Gobernuko Osasun Sailak, farmaziei dagozkien zaintzen plangintzan aldaketa berritzaile bat ezarri du. Hau horrela, herri bakarreko edo oso gertuko herrien artean txandak burutu beharrean, hainbat herritako farmazien artean gauzatuko dituzte egin beharreko txandak. Osasun Sailak egituratua daukan araudiaren arabera, farmazia batek bere zaintza burutzerakotan, legez, edozein herritarrengatik 20 minutuko distantziara egon daiteke. Horrela; Leitza, Areso, Lekunberri, Irurtzun, Goizueta eta Arribeko farmaziei dagozkien zaintzak bateratu egin dituzte eta heldu diren asteetan, elkar txandakatuaz burutuko dituzte beren egin beharrak. Dena den, aste bakoitzean zaintza egi-

teko konpromezua nork daukan egokiro zehazteko, adituek 112 telefonora hotsegiteko gomendatzen dute.

### Aurrera ezin hobeki

Leitzako Aurrera futbol taldeak, ezin hobeki hasi du 2007. urtea. Abendu erdialdean hasierako fasea amaitu ondoren, bi garaipenekin hasi du fase berria. Oraindik taldearen aurtengo helburu behinena lortzeko askotxo falta bada ere, urtarileko aldapa gogorreko lehen pausoak ederki gauzatu dituzte. Ikusi behar heldu diren aste eta hilabeteek zer-nolako berriak ekartzen dituzten talde txurigorriarentzat.

### Urteko lehen osoko bilkura

2007ko lehen osoko bilkura urtarileko bigarren astean burutu zen.



ARGAZKIA: JOSEBA URKIOLA

**Oialde Txoko gazteentzako bilgunea abian da** Oraindik, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailaren onarpenaren zai badaude ere, Oialde Txoko izeneko gazteentzako gunea hasia da luzea izan daitekeen ibilbide bateko lehen pausoak ematen. Gazteak protagonista nagusizat hartzen dituen txoko hau, Leitzako Kristatu Elkartearen eta guraso batzuen elkarlanare fruitua da: Kristau Elkarteak lokala jarri du eta gazteen zaintza egiteko konpromisoa, gurasoek. 2006ko udan indarrean jarri zen proiektu honek, bi xede garrantzitsu dauzka. Batetik, 12 eta 15 urte bitarteko herriko gazteentzako aisialdirako gune egoki bat eskaintzea eta bestetik, gazteak beren denboraren arduradun izaten ikastea. Legezketasuna bermatuko dien onespeneren zai badaude ere, elkarteak asteburuetan 17:00etatik 19:00ak bitarte zabalik egoten da.

Hiru izan ziren Udalak onartutako mozioak. Batetik, Nafarroako Sartaguda herrian aurki erakikiko duten "Oroimenaren Parkea" delakoa eraikitzeko, bertako arduradunei dirulaguntza ematea onartu zuten. Gune honetan, Nafarroako Parlamentuak 2003an onartu bezala, Espainiako Gerra Zibi-

lean fusilatutako lagunak hartuko dituzte aintzatzat. Bestetik, herriko etxebizitzien alokairuen inguruko mozioa ere onartu zuten. Ideia honen proposamena, Larraín Herri Plataformak egin zuen, hutsik dauden etxeak bete eta etxebizitzarik ez duten herritarrei horretarako eskubidea bermatzeko.

Azkenik, Itziar Larraz eta Unai Errea abokatuak aske uzteko mozioa ere onartu zen, Larraín Herri Plataformak plazaratutakoa. UPNko hiru zinegotziak Leitza-ko Udaleko Aretoko Nagusitik irten egin ziren. Hartara, hirugarren mozio hau, herriko beste alderdien artean izan zen onetsia.

UNE-EN-ISO 9001  
**IAC**  
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO  
SCC-02-0199

**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua**

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

**EDDOTALDE BIDE-KLUBA**  
Bidea 4444 12 - 31070 LESAKA  
Tlfno: 948 63 73 48 - 918 61 88 75

**ESKU LIBREKO TELEFONOEN INSTALAZIOA**

Asteleheneretan 18:00-21:00  
Asteartetik ostirakera 10:00-13:00 / 17:15-20:45  
Laruntzetan 10:00-14:00 / 18:00-22:00

## BAZTAN

# San Anton eguna ospatu zuten Elizondon eta Erratzun

Arizkongo Maria Bidegainek eraman zuen lehen saria, aretze bat

## ttipi-ttapa

San Anton egunean, ilbeltzaren 17an, Elizondoko plazan baztandar aunitz bildu zen zozketa tenorerako.

Elizondoko Joaquin Iriartezahar-etxeak, San Anton egunarekin, zozketa bat antolatzen du, lortzen den diruarekin erresidentziako urteko gastuei aurre egiten laguntzeko. Remigio Liza-soain, Jose Javier Bazterrika eta M<sup>a</sup> Isabel Vidarte zinegotzien eta Jose Manuel Landaren laguntzaz, nahi zuen guziari baztan zopak zerbitzatzen zizkioten plazan. Balleko Etxeko balakoian zozketa egin zuten Florentino Goñi zinegotziak, Virginia Aleman alkateak, Inmaculada Urtasun zahar-etxeako administradoreak eta M<sup>a</sup> Jesus Muñoz udal idazkariak.

Lehenbiziko saria, aretze bat, 6.520 zenbakia, Elizondoko Betizun saldua, Arizkongo Maria Bidegain Zalduarentzat. Bigarrena, ze-



ARGAZKIA: ONDIKOL

## Balleko Etxean egin zen San Anton eguneko zozketa.

rri bat (12.206), Izpegi-ko Gaineke Bentan saldua. Hirugarren saria, 2 bildots (12.014), Erratzuko Iparla ostatuan saldua. Laugarrena, magra bat (2.471), Elizondoko Urrutia ileapaindegian saldua.

San Anton egunak bere ospakizuna Erratzun ere izan zuen. Elizondon gehiengoa gizonetzkoa izaten bada, hemen andreak elkar-

tzen dira besta ospatzeko. 12:00etan meza, ondoren Zubipuntan luntxa eta gero 47 lagunendako bazkaria Kastonean. Bazkalondan akordeolariarekin dantzan eta kantuan ibili ziren.

## Obretarako dirulaguntza

Nafarroako Gobernuak Udalari dirulaguntzak eman dizkio hiruro obretarako. 45.269

euro (aurrekontua 75.018 eurokoa da), Elbeten Elbetegaraia eta Autxitxian ur zikinen sarea berritzeko eta hondatutako zolak konpontzeko; Elizondon 35.586 euro (58.972 euroko aurrekontua) Giltxaurdi auzoan saneamendu sarrerako eta ondoko zola konpontzea eta Erratzun 54.107 euro (89.663 euroko aurrekontua) ur horiak berritzeko.

## FLASH

## Gamiozarreko kupel irekitzea otsailaren 10ean

Aitzineko alean Arizkongo Gamiozarreko kupelak ilbeltzaren 27an irediko zirela erran bagenuen ere, otsailaren 10ean egingen dira. Jo ala Jo taldekoak arduratuko dira irekieraz, eta bertzeak bertze, antzerki tiki bat ere izanen da.

## Baztango UPNk 2007ko aurrekontuak kritikatu ditu

EAKo bozei esker onartutako 2007ko Baztango aurrekontuaren kontra azaldu zen UPN. Begoña Sanzberro UPNko zinegotziak gastuak handiak direla salatu zuen; gainera, diru sarrerak behera egingen dutela. Hartara, UPNrentzat 2008ko zergak goiti egingen lukete. Virginia Aleman alkateari senitarteko bati laguntzeko bere ahalmenez baliatu zela ere egotzi zion.

## Sinadura bilketa Elizondon

Zakurrek karrikan sortzen dituzten eragozpen eta arriskuak direla eta, 200 sinadura bildu dituzte Elizondon. Etxeko animaliak edukitze-ko ordenantza errespetatzea eta zakurrak libre ibiltzea debekatzea eskatu diote Udalari.

Carlos Garaikoetxea  
Etxenike  
abokatuak

943 581 807 - 948 581 853  
Elbete

ANTXITONEA  
Trinketea

Jatetxea - Ostatua  
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte kamikari  
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

MEDIKUNTZA NATURALA  
NATUROPATIA

Kontaktua ondategia: Pelotik Tzetara eta Heretik Ipetara. Ordue eskatu

(ONDORIDETATIK INDARTZEKO):  
Diabetes - Ainea - Zizareak - Larra azaleko alergia - Buruko mina  
Oinena izardie - Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRERKORATZEA:  
Miofia - Bista alferria - Estrabismoa - Begi larreak-kataraktak

GIHARRE ARAZOAK:  
Bikartzea - Artritis - Erreuma - Arrosio - Lumbalgia - Bihurdurak - etab

Telefonoa: 943 623 055

San Marcial, 7 - 4 - IRUN



**BAZTAN**

## Merkatuko Plazari zati bat kenduko diote Elizondon

Helburua ibilgailu handiek eragindako arazoak konpontzea da

**Maite OTEIZA**

Elizondoko San Frantzisko Xabier ikasketxera joaten diren ibilgailu handiek eragindako zirkulazio arazoak konpontzeko, Merkatuko plazari zati bat kenduko diote.

Azienden feriak eta baztandarren Biltzarreko herri bazkaria egiten den plaza tikiagoa izanen da, eskolako autobusak eta hortik dabil-tzan kamioien leku arazoak moldatzeko. Santiago Aldako zinegotziak prentsari jakinarazi zionez, aspaldiko proiektua zen plaza tikitze-ko asmoa, bizilagunek behin eta berriz eska-

tutakoa. Aspaldiko egitasmoa bazen ere, ur-tarrilaren edialdean erabaki zuten bideratzea. Gaineratu zuen, lehen-go itxura mantentze al-dera, material aberatsak erabiliko dituztela.

**Elkarte berria Amaiurren**

Amaiurren, orain ar-tio zuten Gaztelu elkar-tearekin batean biga-rren elkarte bat, Otson-do izeneko barrideen el-kartea sortu dute.

Gaztelu elkartearen gaineko aldean kokatua dago. Une honetan es-tatutuak tramitatzen ari dira, eta herriko etxe guztiak bertako bazki-



UTZITAKO ARGAZKIA

**Arizkungo Gamioxarreko kupelak ilbeltzaren 27an idekiko dituzte Jo ala Jo taldekoek**

Larunbat honetan, otsailaren 3an, Gizakunde ospatuko dute Arizkun eta Erratzun. 16:30 ean Arizkungo Gamioxarrean merendua eta mozorroen prestaketa egingen da. Bakoitzak bere mozorroa eraman beharko du eta tuntuurrak Erratzuko Zubipunta ostatuan asteburuero egin diren taile-rretan egin dira. 18:00 etan Arizkundik Erratzuko bidea hartuko dute, Ariz-kungo plazan sagardantzak dantzatu eta gero. Aipatzekoa da ortziraletan sagardantza tailerrak egin dituztela Erratzun. Erratzura ailegatu eta etxez-etxe-ko eskea egingen dute, geldialdietan sagardantza eta mozorrodantza dantzatzuz. Afaldu baino lehen herriko plazan Jantziloren epaiketa eta erre-tzea egingen da eta atseko 10etan Afaria Etxelebertzeko txokoa. Ondotik besta. Aurten Erratzu, Amaiur eta Baztango sagardantzariak arituko di-ra, hortik gainera Bizkargain fanfarrea, joaldunak, hartza eta zaindaria, mozorro txuri eta beltzak, txistulariak, bertsolariak... Afarira etortzeko txartelak Zubipunta ostatuan daude eskuragarri ilbeltzaren 26tik aitzin.

deak izatea da asmoa. M<sup>o</sup> Jose Arribillaga izendatu dute presi-

dente, Rafa Etxebertz Aleman idazkari; Iñaki

Iriarte diruzain eta bo-kalak Isabel Aleman eta Itziar Maisterrena dira.

**ARMUA**  
Jatetxea  
Tel: 948 591 131  
Togakomertzio erreg. 3. km  
URDAZUBI

**MENDI**  
ostatua  
Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO

**MENDIALDE**  
Jatetxea  
T: 948 453 050  
N-121-B, 66. km  
AMAIUR

**Okindegia** Jatetxea  
**Uxoa**  
OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata  
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)  
Especialitatea parrillan erretako jakietan  
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labea errea, goxo goxo!

Ordoki Industrialdea  
Tfnoa: 948 453 403  
31713 ARIZKUN

**POTTEKI**  
ZORRO HERRI BERRI EGARRITZEN!  
Potteteki Plaza, 7 - Jorua  
9100 BILBOA (1. Nafarroa)  
Tfn: 940 960 400  
pott@berrin.com

Parrillak: 10:00 - 21:00  
Kafetaria: 10:00 - 21:00

ALERIA  
TERRAK  
LOTTETAKO ALERIA  
LERRAKO JORAKIA  
TERRAKO BOZKALAKIA  
LITZORRIKO TERRAK  
MARRAKALAKIA  
ORAKIA  
HOTEL TERRAK

## SENPERE

# Zaldubi ikastola ikasgela berrietan sartu da urtarril hastapenean

Elurra bat batean etorri zaigu eta bazterrak untsa xuritu ditu

**Franck DOLOSOR**

Urteberri hastapenean, Zaldubi ikastolako 64 haurrak eta 5 irakasleak egoitza berrian sartu dira. Herriko etxeak altxatu duen egoitza hortan 8 ikasgela, haurtzaindegi bat, bulegoak eta logela bat dituzte. Egoitza berriak 120 haur aterpetu ahal izanen ditu orotarar. Seaskak 15.000 euroko alokairua pagatu beharko du urte oroz. Ikastolak aisialdi gunearekin batera baliatuko du egoitza berri hori. Miliun bat euro gosta den egoitz horrentzat herriko etxeak ez du laguntzarik izan Frantziako estatuaren aldetik.

## Elurra iritsi da

Berriki arte, 18 graduko tenperatura izan dugu eta usaian baino gehiago gozatu ahal izan dugu denbora goxoaz. Urtarrilaren 24an, bat batean aldaketa etorri da. Elurra, elur bustia, euria eta izotza ager-



Adin ederra elkarrekin neguko biltzarra egin du urtarrilaren 25ean. Egun goxoa psatazako parada izan zuten hautetsi eta jaun erretorraren bisitarekin.

ARGAZKIAK: STUDIO DE LA NIVELLE

tu dira azkenean eta herriko inguruak xuri xuriak agertu dira. Urtarrilaren 25ean, 7 graduzeroz azpitik izan ditugu.

## Ate irekitze eguna Arretxean

Arretxeak, bigarren hezkuntza ikastegiak,

ate irekitze eguna eginen du otsailaren 10ean laster 11 urte beteko dituzten haurrentzat eta beren burasoentzat. Heldu den urtean, kolegiar sartuko diren haurrek ikastetxe hori hurbilagoatik ezagutzen ahalko dute. Gaurko egunean, Senpereko

eta inguruetakoko 200 gaztek ikasten dute Arretxean.

## Herriko jantegi berria kiroldegiaren ondoan

Herriko jantegia baliatzen dutenek 18 hila-bete beha egon behar-

ko dute jantegi berria egina izan arte. Egune-ro 180 hurrek jaten dute toki hortan eta lekua ttikiegia da orain.

Gantxiki kiroldegiaren ondoan jantegi berria eraikiko du Herriko Etxeak. 510 metro karratuko azpi egitura hunek 574.000 euroko gastua sortuko dio Herriko Etxeari.

## Luberriko urtegi lanak abudo hasiko dira

Urtarrilaren 17an, Luberria urtegia egiteko merkatuen banaketak sinatu dituzte Urdazuri aldeko auzapezek eta Jean-Jacques Lasserre Pirinio Atlantikoetako departamenduko Kontseilu Nagusiko presidentak. Badira 20 urte proiektu hori egitea aipatzen dutela hautetsi desberdinek. Ondoko egunetan hasiko omen dira lanak baina 3 miliun eta erdi falta dira aintzinkonduan.

**Landibar** ZENTRO KOMERTZIALA

300m perfume markarik ezagunenekin, usain onak, kosmetikoak...  
Euskal Herriko preziorik hoberenak

EGUNERO IREKIA

Tel: (0034) 948 599 400 URDAZUBI

**bentamiguel**

ONGI ZAINDUTAKO SUKALDARITZA  
Menuak aukeran

Entzuten  
Liderenak  
Batasunean  
Lideria

**SARA**

## Otsailaren 17 eta 18an ospatuko dira ihauteriak

Igande goizerako sorgin dantza muntatu nahi du gaztetxeak

**Laetitia eta Sandrine**

Urte guziz bezala, sarran ihauteriak antolatutak izanen dira otsailaren 17 eta 18an. Larunbatarekin etxez etxe ibiliko dira, Helbarrun, Ihalar, eta Lehenbiscay auzoetan eta igandearekin animazioak izanen dira plazan. Aurten igandean goizean plaza animatzeko xedearekin, gaztetxeak sorgin dantza muntatu nahi luke. Horregatik nahi duten guziek parte hartzen ahal dute: hiru errepika antolatuak dira dantza gelan (denen etxea bigarren estaian) urtarrilaren

29an, otsailaren 5ean eta 12an arratsko 8etan. Iaz bezala ikastolak bazkaria antolatzen du igandean. Txartelak salgai izango dira Herriko Etxeko edantegian.

**Errugbia**

Urtarrilaren 14an igandearekin, Sarako taldea Labatut taldearen kontra aritu ziren. Erreserbak galdu zuen eta lehenak joko eder bat erakutsi eta irabazi zuen 12-15. Urtarrilaren 21ean igandearekin, sarran aritu ziren Tartas taldearen aurka, bi talde-



ARTXIBOKOA

Ttikienek ere aurtengo euren ihauterietako mozerroak erakutsiko dituzte herriko karriketan.

ek galdu zuten, erreserbak 30-9 eta lehenak 10-9.

Heldu den partida iraganen da otsailaren 4an Pouillon taldearen kontra kanpoan.

**Pasaka**

Joan den urtarrilaren 27ko asteburuan, pasakako lehen mailako Frantziako txapelketaren laurden finalak jo-

katzekoak ziren Mattin Arrieta eta Jean Jacques Eliceiry.

Heldu den otsailaren 3ko asteburuan Lemoine koparen kari Andoni Alli eta Jean Marie Lapeyre arituko dira. Irabazten baldin badute lehen mailan geldituko dira heldu den urtean. Baina galtzen baldin badute bigarren mailara jautsiko dira.

**Berriemaile bila**

Orain arte Sarako berriari eman dituzten Laetitia eta Sandrinek azken alea dute oraingo hau, eta hortaz, postua hutsik gelditzen da. Hemendik aitzinera Ttipi-Ttapa aldizkarirako Sarako berriemaile lanak egiteko interesatua dagoenak deitu dezala (0034) 948-63 54 58 telefonora.



**Grupo Tanatorio Taldea**  
**IRACHE**  
Maldaerrekak S.L.  
Funeraria Baztan

**24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN**

**TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA**

**LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK**

Bera 948 63 74 04 SAN JOSE BEILATOKIA	Elizondo 948 58 19 59 FUNERARIA BAZTAN TANATORIO BAZTANDARRA
Doneztebe 948 63 74 04 SAN PEDRO BEILATOKIA	Leitza 948 63 74 04 LEITZAKO BEILATOKIA
 <p><b>Grupo Tanatorio Taldea</b> <b>IRACHE</b> Maldaerrekak S.L. Funeraria Baztan</p>	Lesaka 948 63 74 04 LESAKAKO TANATORIOA



**Jose**  
**GOYA RETEGUI**

**Beratarra, 2007ko urtarrilaren 5ean hil zen Iruñean, 88 urte zituela.**

Gure artean denbora gehiago egotea nahi; eta ezin ataxi maitea; denon bihotzetan betiko zaude gurekin.

**ZURE FAMILIA.**

TURISMOA

# Bertiz Natur Parkeko sarbidea itxi dute, zubiak arraildurak dituelako

Zubiak ezin du gainetik pasatzen zaion jendearen eta ibilgailuen joan-etorria jasan

ttipi-ttapa

Bertiz Natur Parkeko sarbide nagusia guttienez hilabete batez itxita egonen da, bertze arrail bat agertu delako zubi gainean. Arazoa ez da berria, joan den urtean ere bertze arrail bat agertu baitzen zubiaren alde batean. Konpontzeko obrak egin arren, zartadura berria agertu da, geroztik zubi gainetik pasatu den trafiko handia ezin duelako jasan.

Hartara, arazoa konpontzeko lanek irauten duten bitartean, natur parkeko sarrera itxita egonen da oinezko eta ibilgailuentzat. Halere, oinezkoak Erreparazea



ARGAZKIA: ONDIKOL

**Bertze arraildura bat agertu da Bertiz Natur Parkera sartzeko zubi gainean, eta itxi egin behar izan dute sarbidea.**

zubitik sartu ahal izanena dira parkera. Zubiak orain dela 100

urte baino gehiago erai-ki zen, eta azken 25 urteotan parkera sartzeko

joan-etorrien ondorioz, gehiegizko pisua jasan du, batez ere, au-

tobusena. Gutti goitibehiti urtean 90.000 lagunek bisitatzen dute parkea.

Duela bi urte oraingo leku beretsuan arrail bat aurkitu zen, eta zartadura horri eusteko horma eraiki zen. Hala ere, bertze arazo berdina azaldu da. Dirudieenez, ez dago zubi erortzeko arriskurik, baina badaezpada ere urtariraren 19az geroztik itxita dago. Bisitari guttien ibiltzen den garaia aukeratu dute parkea ixteko. Zubi azpitik pasatzen den Bidasoa ibaiak urteko bertze sasoietan baino ur guttiago dakarrela ere aprobetxatu dute lanak egiteko.



**Peio MARTIKORENA ALZURI**  
I. URTEURRENA

Urte osoan izan zaitugu Ongi gordea gogoan Irudipena dugu zaudela Beti gure ondoan.

**Urteko meza:** otsailaren 4ean, igandea, goizeko 10etan Berako San Esteban Parrokian. Mila esker aitzinetik bertaratuko zareten guztioi.

**MARTIKORENA DANBORIENA SENDIA.**



**ZUBI**



Gure lehengusu ta lagun gisa gurek nahi zaitugu omendu zure poz eta irribarrea egiten zen nabarmendu eta mendiak eman dizuna orain egin dizu kendu jarraitu zazu mendian hegan inoiz ez bait zara zendu.



**Unai ETXEPARE ELIZEGI**  
**Xabi SARALEGI ALTZATE**  
2007ko urtarrila

Igo nazazu nire mendira aurki dezadan bidea askatu nadin zure loturaz behar dezadan airea (...)

Ttiki ttikitatik haziak gure artean beti eramanen zaituztegu gure bihotzean.

**TANTIRUMAIRU IKASTOLA.**

## HERIOTZAK

**Jose Goia Retegi**, Berakoa, urtarrilaren 5ean, 88 urte.  
**Xabier Zubieta Erkizia**, Berakoa, urtarrilaren 13an, 33 urte.  
**Luis Mari Pikabea Zubieta**, Berakoa, urtarrilaren 13an, 33 urte.  
**Xabier Saralegi Altzate**, Lesakakoa, urtarrilaren 13an, 32 urte.  
**Jose Martin Mate Molinero**, Gartzaingoa, urtarrilaren 11n, 84 urte.  
**Felipa Etxeberria Gelai**, Elizondon, urtarrilaren 13an, 94 urte.  
**Martin Jose Irigoien Argiñena**, Donamariakoa, urtarrilaren 9an, 92 urte.  
**Emilio Lopez Moreno**, Berakoa, urtarrilaren 8an, 63 urte.  
**Custodia Bielsa Munarriz**, Elizondokoa, urtarrilaren 11n, 89 urte.  
**Candida Loperena Lekaroz**, Berakoa, urtarrilaren 16an, 84 urte.  
**Antonia Barberon Del Puerto**, Berakoa, urtarrilaren 20an, 93 urte.  
**Maria Dolores Azkona Iturrospe**, Berakoa, urtarrilaren 22an, 69 urte.  
**Emiliano Vicente Apezetxea**, Arizkungoa, urtarrilaren 21ean, 84 urte.  
**Maria Egaña Alkorta**, Oronoz-Mugairikoa, urtarrilaren 23an, 90 urte.  
**Pierre Delpech**, Sarakoa, urtarrilaren 10ean, 73 urte.  
**Jeanne Indaburu**, Sarakoa, urtarrilaren 16an, 86 urte.  
**Laurent Ithurria**, Sarakoa, urtarrilaren 12an, 84 urte.  
**Michel Bertizberrea**, Sarakoa, urtarrilaren 17an, 32 urte.

## SORTZEAK

**Oihan Maiz Fernandez**, Arantzakoa, urtarrilaren 9an.  
**Ane Urreaga Eskudero**, Iruritakoa, urtarrilaren 11n.  
**Aimar Rios Agila**, Berakoa, abenduaren 20an.  
**Kemen Zubillaga Paz**, Berakoa, urtarrilaren 9an.  
**Nerea Satrustegi Mikelarena**, Doneztebekoa, urtarrilaren 11n.  
**Eneko Irazoki Caramazana**, Lesakakoa, urtarrilaren 3an.  
**Dabid Joseph Bergman**, Etxalarkoa, urtarrilaren 6an.  
**Ana Arburua**, Sarakoa, abenduaren 31n.



## EZKONTZAK

Ez da datu berririk.



**Xabier ZUBIETA ERKIZIA**  
**Luis Mari PIKABEA ZUBIETA**  
**Xabier SARALEGI ALTZATE**



Gurekin geldituko dira beti  
 rako  
 Elkarrekin pasatu ditugun  
 lagunarte atseginak.



**Xabier ZUBIETA**  
**"ZUBI"**



Etxeko atetik irten zen  
 eta ez dugu bertatik sartzen be  
 rriz ikusiko.  
 Arantzatik irten zen  
 eta ez dugu herrira sartzen berr  
 ikusiko.  
 la ere, badakigu  
 gure bihotzetatik  
 ez dela inoiz aterako.



**Xabi**  
**SARALEGI ALTZATE**



Xoxo beltza izan haiz  
 kaiolarik gabe  
 bizitzari mokoka  
 gogoz etengabe.

**HIRE LESAKAKO KUADRILLA.**

## MENDIA

# Xabier Zubieta, Loro Pikabea eta Xabier Saralegi Taillon eskalatzen hil ziren

Omenaldi hunkigarria egin zitzaizen urtarrilaren 14an Beran



ARGAZKIA: EDURNE PASABAN

Taillon igotzen hasi baino lehen argazki hau atera zien Edurne Pasabanekek Bera eta Lesakako hiru mendizaleei eta Asier Izagirre igoera kideari.

## Aitor AROTZENA

Mendiko berriei dagokienez, ezin beltzagoa izan da aurtengo ilbeltza. Hilaren 5ean, Unai Etxepare mendizale lesakarra hil zen Anayeten. Astebete beranduago, hilaren 13an, Xabier Zubieta eta Luis Mari Pikabea Berako lehengusuak eta Xabier Saralegi lesakarra hil ziren Gavarnieko zirkuan, Taillon mendian eskalatzen ari zirela. Hiruak ere mendizale esperientzidunak eta treba-

tuak ziren. Zubieta eta Loro Himalaian ere ibiliak ziren, 8.000 metrotik goitiko Gasherbrum eta Shisha Pangman bertzeak bertze. Agerra mendi taldeko kide eta bultzatzaileak, biek Manttale mendi lasterketa taldea sortu berria zuten eta Nafarroako mendi lasterketa selekzioa sortu nahizik zebiltzan.

Saralegi ere pausuz pausu ari zen bere mendi zaletasuna garatzen. Hiruak, astebete lehe-

nago Unai Etxepareren bila ibiliak ziren eta Saralegi topatu zuen bere lagunaren gorpua.

Hiru mendizaleen istripuaren berriak samina eta goibeltasuna hedatu zuen berriz ere Bortziritan. Familiakoek eta senideek Tarbeseko gorputegira joan eta biharamonean gorpuk Berara ekartzea lortu zuten. Egun horretan, omenaldi hunkigarria

eskaini zitzaizen hiru mendizaleei kiroldegian antolatutako hil kaperan. Zubieta eta Pikabearekin Himalaian sutripuaren berriak samindari ibili zen Nima sherpak erritu tibetar budista bete zuen, kandelak pitzuz eta hildakoei edaria eta janaria eskainiz. Aurrekua ere dantzatu zen eta Bera eta Lesakako abesbatzek elkarrekin «Hegok» kantua eskaini zie-

ten. Bertsoak eta kantua ere izan ziren eta lagun eta senide batzuk hitza hartu zuten, hiru hildakoen izena gorai-patzeko eta gelditzen direnei babesa edo animoak emateko.

Ilbeltzaren 20an eta 27an hiru mendizaleen errautesak Santa Barbaran eta Aiako Harrian hedatu zituzten, bertze omenaldi ekitaldi xume eta hunkigarrietan.



**Xabier ZUBIETA ERKIZIA**  
**Luis Mari PIKABEA ZUBIETA**  
**Xabier SARALEGI ALTZATE**

**H** Gailurra edo magala, zein ikusmira zabala maitatzen segiko zaituztegu, zuek mendia bezala.

**ZUEN FAMILIAK.**

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin duzuen guzietan, mila esker.



**ZUBI, LORO eta XABI**



Xoxo beltza izandu zarete kaiolarik gabe bizitzari mokoka gogoz etengabe.

**LESAKAKO XABIren KUADRILLA.**

## PILOTA

# Bortziritako eskuz banakako txapelketaren finalak jokatu ziren

Lesakan urtarrilaren 20an akautu zen seigarren edizioa

A.A.

Urtarrilaren 20an jokatu ziren Lesakako frontoian Bortziritako eskuz Banakako seigarren pilota Txapelketaren finalak.

Aurrebenjaminak B mailan, Arkupe elkarteko bi lesakar izan ziren lehian eta Julen Otxotekok 18 eta 10 irabazi zion Aimar Otxotekori.

Ondorengo partidua aurrebenjamin mailan, Igantziko Biltokiko bi pilotari aritu ziren. Enaitz Telletxeak 18 eta 11 irabazi zion Jokin Mitxeori. Bi partiduak azkar jokatuak izan ziren eta aski politak. 6-7 urte bertzerik ez izanagatik, pilotari dotoreak diela erakutsi zuten.

Benjamin B mailan, Igantziko Biltokiko Oihan Canabalek 18 eta 12 irabazi zion Etxalarko Altxatako Xabier Sanzberriari.

Benjamin mailan, Berako Gure Txokoako Andoni Lazkanotegik 18 eta 3 irabazi zion Lesakako Arkupeko Jon Ubiari.

Alebin B mailan, Gure Txokoako bi pilotarien arteko finala jokatu zen. Iñigo Martinezek 18 eta 2 irabazi zion Jokin Pinatxori.

Aipatu alebin mailan Lesakako Unai Zamorano eta Berako Beñat Mitxelenaren artean, partida gogorra eta kalitatezkoa ikusi zela. Bata nahiz bertzea aski pilota zailtara ailegatu zi-



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

**Bortziritako eskuz banakako pilota txapelketaren finalista eta txapeldunak ageri dira, beraien sariekin.**

ren. Azkenean Zamoranok 18 eta 11 irabazi zion Mitxelenari.

Infantil B mailan Etxalarko Altxatako Beñat Maiak ez zuen partida hasiera ona egin, baina azkenean buelta eman eta 18 eta 15 irabazi zion Igantziko Biltokiko Adur Yanciri. Baina horretarako lana gogotik egin behar izan zuen tanto gogor eta landutakoekin.

Infantil mailan bi lesakar, Josu Sanjurjo eta Mikel Maia, nor baino nor gehiago aritu ziren. Partida polita, gogorra eta emozioz betetakoa izan zen azkenera arte, beti berdintsu joan baitziren markagailuan. Azkenean Sanjurjok 18 eta 16 irabazi zion Maiari.

Hurrengo partida, Kadete B mailako finala, ez zen jokatu, Txa-

rutako Imanol Juanena ez baitzen azaldu, gaxorik zegoelako. Horrela, Gure Txokoako Etxahun Aurkenerenak eraman zituen txapela eta txapeldunaren kopua, nahiz eta bera, jokatu gabe txapeldun izateagatik pozik ez sentitu. Beharbada hori izan zen finalerako momenturik ilunena.

Kadete mailan, Txarutako Oier Bereauk 18 eta 9 irabazi zion Arantzako Ekaitzako Unai Iparragirreri.

Ondoren finalistei trofeo eta txapelak banatu zitzaizkien eta orizgarri bana ere eman baitziren txapelketan parte hartu duten pilotari guziei.

Bortz herriko pilotarien arteko harreman sendoak ikusteko ere baliagarriak izan ziren

finalak. Horixe da Bortziriak Pilota Elkartek bultzatu nahi duen helburuetako bat, harreman onak izan dezatela bertze herrietako pilotariekin eta astero antolatzen diren entrenamenduetan ere, herri ezberdinetako pilotariekin elkarrekin jokatzeko dute eta hori pilotariarentzat ona da.

Bortziritako bi txapelketak bukatu diren arren, binakakoa eta banakakoa, hemendik aitzinera Bortziritako pilotariak parte hartuko dute hainbat txapelketetan. Adibidez, orain hasiko den Belateko Klubaren arteko Txapelketa, Zizurko Banakako Txapelketa, Euskal-Herriko Txapelketa, Herri arteko Txapelketa, Ezkurra Memoriala eta bertze.



Otxoteko eta Otxoteko.



Telletxea eta Mitxeo



Canabal eta Sanzberro.



Lazkanotegi eta Ubiria.



Martinez eta Pinatxo.



Zamorano eta Mitxelena.



Maia eta Yanci.



Sanjurjo eta Maia.



Bereau eta Iparragirre.

## PILOTA

# Binakako Faustino txapelketa irabazi dute Koteto Ezkurrak eta Julen San Miguelek

Doneztebekoek 40-24 irabazi zieten finalean Altuna I eta Urrutia saldiastarrari

Donezteben erremontea modu berezian bizi dela jakina da. Ez dago Euskal Herrian bertze herririk hainbertzeko afizioa duenik. Gaur egun zazpi erremontista profesional daude, bertako erremonte eskolan hasitakoa da Migel Mari Urrutia saldiastarra ere eta aunitz dira txapelen bat

jantzitakoak. Koteto Ezkurra, pilota profesionaleko azken mitoetako bat Doneztebekoa da, eta bertakoa da Julen San Miguel ere, koadroko izar gaztea. Batera jokatu dute aurten Binakako Txapelketa, eta elkarrekin lortu zuten urtarrilaren 13an Faustino txapelketa honetako txapel handia. Finalean, 40-24 irabazi zieten Altuna I eta Migel Mari Urrutia saldiastarrari. Txapeldunen herritarrek ere beraientzat erremontea berezia dela erakutsi zuten harmailetan. Gazteak autobusez joan ziren, eta heldu aunitz kotxez. Doneztebekoak jaun eta jabe izan ziren harmailetan, baita kantxa gainean ere.

## Aitor AROTZENA

Koteto Ezkurra berteranoa, Julen San Miguel hasi berria; 30 urteak gaindituak ditu Kotetok, 19 urte bertzerik ez Julenek; Ezkurra ttikia, San Miguel luzea, Koteto lasaia, San Miguel urduria... Itxura batean bikoa egiteko ez dute antzekotasun handirik, baina bikote bikaina osatu dute txapelketan. Batentzat lehenbiziko txapel handia da, bertzearentzat hamabigarrena, baina biak kontent daude.

Txapelketa hasieran zalantzak zeuden bikote honek eman zezakenez. Halere, partidak aitzinera joan ahala, za-

lantzak uxatu eta bikote sendoena zela erakutsi zuten.

Koteto Ezkurraren ustez, «txapelketa hasten denean beti ikusten dituzu bikote batzuk konpentsatuagoak daudela eta horiek izaten dira normalean indartsuenak. Bikote ona osatzen genuen, baina ni ez nintzen arras ongi eta bagenekien nire jokoaren arabera ibiliko zela bikotea. Azkenean goiti joan nintzen, Julen ere arras ongi aritu da eta txapelketaren erdialdera ikusten nuen bikote ederra egiten genuela».

San Miguelen ustez ere bikote ona egiten zuten «baina baziren ha-



Ezkurra eta San Miguel laxoan ha-

gitz onak ziren bertze bikote batzuk ere».

Gaztearentzat parte hartzen zuen lehenbiziko txapelketa zen, baina aitzinean Koteto bezalako beterano bat izatea mesede izan da: «Kotetorekin jokatzeari abantaila da, eta nik nahiko lasai jokatu dut txapelketa guziaz».

Koteto Ezkurrak, txapelketa irabazita berriz ere onenen artean ikusten du bere burua; bere ustez bolada txar xamarra pasatzen ari baitzen: «Neretako urte nahiko zaila izan da; uda aldean lesio tiki bat izan nuen eta ezin izan nuen banakako txapelketa jokatu, gero sasoia ezin



**“Denok ezagutzen dugu Koteto, onena da. Kolpe handia du, ongi defenditzen du, hanka izugarri bizkorrak ditu, hitz batean onena da”**





ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

asi eta erremontera pasatu ziren. Argazkian, Doneztebeko botarriaren ondoan.

hartuz ibili nintzen... hila-  
labete eta erdiz joku al-  
detik ere gaizki ibili nin-  
tzen eta azkenean zu-  
re buruari ematen dio-  
zu: ez zaudela ongi, zer  
pasatzen ari den. Bai-  
na azkenean, lan egi-  
nez forma bueltatzen da.  
Lesioak ahanzi eta mo-  
rala hartuta, berriz ere  
joku maila ona hartu du-  
dala uste dut. Egube-  
rrietan Martiko txapel-  
ketan ere ikusi zen be-  
tikoa nintzela. Frontoian  
azkar ibiltzen nintzen,  
beldurrik gabe, pilota  
erraz mugitzen nuen,

animo hori hartu nuen,  
finalerdietan partidu  
onak jokatu nituen eta  
finalerako betiko mora-  
larekin eta gogoekin  
nengoen». Txapelketa  
horren finala Zeberio  
II.ari irabazi zion aben-  
duaren 30ean Labriten.

Julen San Miguelek  
duela bi urte eskas de-  
butatu zuen, 17 urtere-  
kin. 19 urterekin dago-  
eneko handienekin ba-  
tera jokatzen du eta txap-  
el baten jabe da. Bila-  
kaera hori hain abudo  
etortzea espero ote  
zuen galdegin diogu:

**«Etorkez handiko erremon-  
telaria, atzelari  
indartsua da Julen eta bada-  
ki pilotan jokatzen,  
pilota kentzen, noiz sartu,  
noiz utzi...»**

## «Txapelak irabaztea ongi dago, baina urte osoan maila mantendu behar da»

A.A.

Esperientziak eta urte-  
teek ematen duten pa-  
txadarekin solasten du  
Koteto Ezkurak. Az-  
ken honekin hamabi-  
garren txapela du bu-  
ru gainean, bederatz-  
buruz burukoan eta hi-  
ru binaka. Halere, ez  
da inoiz aspertzen eta  
ilusio handiarekin har-  
tu du binakako hau ere.  
«Niri kriston ilusioa  
ematen dit eta txapel-  
keta bat aurkezten du-  
tenean, nik beti ira-  
bazteko asmoa izaten  
dut. Txapelketak beti  
hor daude, oso politak  
dira, palmaresa ere ga-  
rrantzitsua da, baina nik  
beti erraten dut guk ur-  
te osoa joka-

tzen dugula eta hormai-  
la mantendu egin be-  
har da. Frontoira etor-  
tzen den jendea txap-  
eletaz ahazten da. An-  
bizio horrekin mant-  
tzeko serioa izan be-  
har duzu eta pilotan jo-  
katzean disfrutatu. Ni  
beti horretan saiatzen  
naiz. Txapelek beti ilu-  
sioa egiten dute eta aur-  
tengoak bereziki, he-  
rriko gazte batekin ba-  
tera aritu naizelako. Gu  
nahiko ikusita gaude,  
baina Julenek jende  
gaztea eramaten du  
frontoira eta herriko gi-  
roan somatzen da. Fi-  
nalean zer giro zego-  
en ikusi egin behar  
zen!».



# AGENDA egunez egun

## INAUTERIAK

### ARANTZA

Otsailaren 8tik 10era  
iñauteriak. Xehetasunak 12.  
orrian.

### IGANTZI

Otsailaren 9an eta 10ean  
iñauteriak. Xehetasunak 13.  
orrian.

### SARA

Otsailaren 17an eta 18an  
iñauteriak. Xehetasunak 24.  
orrian.

## ZINEMA

### LEITZA

Otsailaren 2an eta 4an,  
«Infiltrados» filma ikusgai  
zineman. Ostiralean  
22:30ean eta igandean  
19:30ean.

Otsailaren 9an eta 11n,  
«Pequeña miss Sunshine»  
filma ikusgai zineman.  
Ostiralean 22:30ean eta  
igandean 19:30ean.

## IKASTAROKAK

### GOIZUETA

Otsailaren 8an,  
"Agresibitatea eta biolentzia;  
tolerantzia eta errespetuan  
oinarritutako heziketa"  
izeneko ikastaroa Eskolako  
jangelan, 15:00etatik  
16:30era.

## TAILERRAK

### BERA

Otsailaren Marrazki artistiko  
tailerra emanen du Matilde  
Brugierek, Gure Txokoa  
elkarteak antolatua. Izen  
emateko 620 719400  
telefonora deitu.

## KANTU AFARIAK

### GOIZUETA

Otsailaren 2an Gartxot eta  
Edorta abeslariak emanaldia  
eskainiko dute Gaztetxean  
«Gazteak kantan»  
kanpainaren barnean.

## TELEBISTAKO TXOKOA



IÑAUTERI USAINEAN

# Arantza eta Igantziko iñauteriak Ttipi-Ttapa Telebistan

Hasiak dira dagoeneko iñauteriak eskualdean. Ituren, Aurtiz eta Zubietako joaldunen joan-etorrien ondotik, Sunbillako karrozen desfilea etorri zen; Leitzakoak ere pasatuak ditugu. Oraingoan Bortziariak aldekoen txanda ailegatu da. Iñauteri ofizialen atarian, gainean ditugunak Arantza eta Igantziko iñauteriak dira. Arantzan, hurrengo ortzegun goizean, otsailaren 8an, emanen diete hasiera, eta hantxe izanen da Ttipi-Ttapa Telebista ere, mozorro xuriekin baxerri-baxerri. Larunbata, otsailaren 10a, izanen dute azkeneko eguna Arantzan, eta urteroko ohi-turari huts egin gabe, herriko pi-

lotalekuan egiten den herri-kirrol jardunaldiko irudiak erakutsiko dizkizuegu. Aurtengoan, berrikuntza gisa, herriko gazteek egiten duten aizkora apustuko irudiak ere eskainiko dizkizuegu. Lehenagotik, berriz, haur tikiien mozorroak agertuko dira telebistan. Igantzin, berriz, Arantzan baino egun bat beranduago hasiko dira iñauteriak. Mozorroak etxez-etxe ibiliko dira eskean heldu den ortziraletik aitzinera, eta gure telebista haiekin ibiliko da. Iñauterietan, hango eta hemengo ekitaldi eta momenturik ederrenetaz gozatzeko aukera, beraz, Ttipi-Ttapa Telebistan.

## DISKAK



10 urte egurra ematen

### JALISKO BAND

ETXE-ONDO, 2006

Kalean da Jalisko Band-en bigarren diskoa, "10 urte egurra ematen". Izenak dioen bezala, hamar urtetan egindako lana bildu dute, duela hamar urte eman baitzuten lehen kontzertua, 1996ko Sunbillako iñauterietan. Mexikoko zein Euskal Herriko kantuak, lasaiak zein biziak, denetarik bildu dute 13 kantuko lan berrian. Horietatik zazpi taldeak sortu ditu, Julen Zelaietaren hitzen laguntzarekin. Taldean ere kide berria dute, Mikel Artieda beratarra. Gainerakoak lehengoak dira: Aitor Ibarra 'Jalisko' ahotsa eta tronpetarekin, Oskar Mindegia baterian, Karlos Mindegia teklatuan eta Joxerra Mitxelena gitarrarekin. Ospe handiko musikariaren laguntza ere izan dute oraingoan, Tapia eta Leturia, Niko Etxart eta Txutxin Ibañezena, bertzeak beste. Beti Alai Txarangaren doinuak ere entzun daitezke diskoan.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA  
(Urtarrilaren 12tik 19ra bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



Zerrikumea  
(19 kilo): 36,00 € (-1,00)

Zerri gizona  
0,927 € kilo. (=)

Zerramak:  
0,405 € Kg/bizirik. (-0,025)

### BEHIKIA



Aretze gizenak:  
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,98 (=)  
1.koa 3,73 (=)  
2.koa 3,53 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal  
Extra 4,10 (=)  
1.koa 3,85 (=)  
2.koa 3,62 (=)

Oharra: Prezioak 180-220  
Kg. kanalean pisatzen du-  
ten aretzeenak dira.

Aretze tikiak  
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:  
urruxak 210,00 (=)  
idixkoak 276,00 (=)

Aretze nabarrak:  
urruxak 170,00 (=)  
idixkoak 195,00 (=)

Zaldikoak: €/k  
Sortuberriak: 2,94/3,05  
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90  
Bildotsak: €/k  
6-8 kilokoak: 5,10/5,80  
8-10 kilokoak: 3,90 /4,60

**JAKIN BEHARREKOAK**

# Internet zerbitzua eteteagatik kalte-ordainak jasotzen ahal dira

Erreklamazioak egiteko ohartarazi du Irache elkarteak

Teknologia berrietarako sarbideak direla-eta, nabarmen ugaritu dira sektore horren inguruko keak. Azken urteetan, konpainiak jakin batzuk sarritan eten dute Internet zerbitzua denboraldi baterako, kontsumitzaileak hileroko kuota ordaindu arren. Hori dela eta, Interneteko erabiltzaileak babesik gabe gelditu izan dira.

Halako egoerak konpontze aldera, Internet zerbitzua denboraldi baterako eten den kasuetan bederen, ordainak ezarri dituzte. Hala, joan den uztailaren 25az geroztik, Internet zerbitzua eteteagatik kalte-ordainak jasotzeko eskubidea dute erabiltzaileak. Internetik gabe igarotako denbora-tartearen arabera, erabiltzaileak telefonia konpainiari ordaintzen dion kuota



**Telefonia konpainiek Internet zerbitzua eteten badute hainbat kuota ordaindu beharko dizkiete erabiltzaileei.**

eta beste zenbait kuota finko jaso ahal izanaren dituzte.

Operadorea kalte-ordainak lehenbailehen ematera behartua dago; zerbitzua moztu ondorengo fakturan. Halere, horretarako, zerbitzua eteteak eragindako kaltea euro batekoa baino handiagoa izan behar du. Hartara, Internet erabili nahi eta ez funtzionatzeak sortutako saminetik ha-

ratago, gutxienez, kontsumitzailea ez da eskubideak defendatu ezinik geldituko.

Irache Kontsumitzaileen Elkarteak arau hau argitaratu denetik hainbat erreklamazio jaso ditu Internet zerbitzuaren etenaldiak direla eta. Hain zuzen, erreklamazioei esker lortu dute kaltetuek ordaina jasotzea.

Telefonia finkoa eta Internet zerbitzua biak

batera kontratatzeko eskaintza egiten den kasuetan, bakoitzari dagokion kostua adierazi dezake operadoreak. Ostera, bakoitzaren kostua eta bakoitza bere aldetik kontratatzea proportzionaltzat hartzen dira. Zerbitzu bakoitza bere aldetik merkatuz ez bada, bakoitzak %50eko gas-tua duela ulertuko da.

Erabiltzaileak zerbitzua etetea egotzi daitekeenean bakarrik ezin izango du kalte-ordaina jaso.

Kalte-ordain batzuen inguruko araudia ezarri bada ere, kontsumitzaileak bes-telako kalteak erreklamatzeko eskubidea ere baduela ohartarazi du Irache elkarteak, eta Internet zerbitzua eteteagatik kalte-galera gehigarriak jasanez gero, kontsumitzaileak elkartera jo dezakeela.

# AGENDA egunez egun

**MENDI ATERALDIAK**

**BAZTAN**

**Otsailaren 4an** Aritzakunera ateraldia antolatu dute Baztango Mendigoizaleek. **Otsailaren 11n** Harrizurira ateraldia antolatu dute Baztango Mendigoizaleek.

**SUNBILLA**

**Otsailaren 4an** Irubelakaskoara ateraldia antolatu du Ulibeltzak menditaldeak.

**ZUGARRAMURDI**

**Otsailaren 11n** Osondo-Elizondo ibilaldia egingen du Atxuria menditaldeak.

**BERTSO AFARIAK**

**BERA**

**Otsailaren 10ean** Lizaso eta Mañukortarekin bertso afaria Zubiondo sagardotegian. 21:00etan. Txartelak jatetxean bertan salgai 28 eurotan edo telefonoz erreserbatu 948 625472.

**SUNBILLA**

**Otsailaren 10ean** Mendiluze eta Peñagarikanorekin bertso afaria Sunbillan, Ulibeltzak elkarteak antolatuta, 21:30ean. Sarrerak 25 eurotan salgai Itturburu eta Fonda ostaluetan edo telefonoz deituta 616 170177 (Angel M<sup>a</sup> Mariezkurrena).

**KONTZERTUAK**

**BERA**

**Otsailaren 14an,** Iñauterietako kontzertua, Musika Eskolan.

**ELIZONDO**

**Otsailaren 3an,** Joxeina Lur diskotekan, 01:00ean. Sarrera: 8 euro. **Otsailaren 10ean,** Joselu Anayak taldearen kontzertua Lur diskotekan 0:30ean. Sarrera: 8 euro.

**LIBURUAK**



Kasandra leihoan

Fito RODRIGUEZ

TXALAPARTA, 2006

Kasandra eta Ihardets Parisetik Islamabadera doan hegaldian doaz, abioian, azalpenik eman gabe, Erromako aireportuan gelditzen denean. Geldialdi horren ezinegona, asperdura eta urduria uxatzeko liburuaren bi protagonistek elkarri filmak kontatzearen jolas zaharra berrituko dute. Jolas honen bidez zinemaren historiaren film ezagun, ezezagun, klasiko eta ez hain klasikoaren istorioetan murgilduko dira. Filmen gertakizunak ha-

rilkatuz, bizitzaren gakoak helduko diete: zoriontasuna, bakardadea, heriotza, bizikidetzatza... Hala, bada, abioian geroz eta astunagoa egiten ari den girotik urruntzeko ihesbideaz gain, galdera gako horien erantzunak bilatuko dituzte zazpigarren artea deritzogun horretan. *“Gauza bat proposatuko dizut. / Hizketarako gogoia ala? / Ez bereziki, baina denbora pasatzeko aringarria suerta daiteke. / Zer da, bada?”*.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar da.  
Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da  
(nahi izanez gero argazkiarekin).

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

### ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

### GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

### LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

### ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

### LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

### IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

### MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

### ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

### DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

### HARREMANAK

- 801. Agurrak

## ADOS

- **ELIZONDO.**  
- Apartamentu eta pisuak salgai.
- VPO pisuak salgai.
- Terreno rustikoak eta urbanoak salgai.
- **ARANTZA.**  
- Borda eta etxeak salgai.
- **BERA.** - 2 pisu salgai.
- **LESAKA.**  
- Pisuak eta terreneak salgai.
- **ETXALAR.**  
- Harritzko etxea salgai.
- **DONEZTEBE.**  
- Eraikuntza berriko pisuak salgai.
- 10 minutura: baserria, borda eta lurraekin salgai.
- Etxeak eta bordak salgai.
- **LEITZA.**  
- Pisuak salgai. Aukera ona!!
- **BAZTAN.**  
- Bordak, baserriak, etxeak, pisuak, apartamentuak eta terreneak salgai.
- **PROMOZIO BERRIAK:**
- **IGANTZI.** AZKEN pisua trasteroarekin eta aparkalekuarekin salgai.
- **ELIZONDO.** VPOko pisuak trastero eta aparkalekuarekin salgai.

INFORMA ZAITEZ!  
948 451 841 / 948580705  
www.ados-inmobiliaria.com

### ETXEBIZITZAK

#### 101 Saldu

**IRUÑA.** Pisuak salgai erdi aldean. Igogailua, berokuntza, 90 m<sup>2</sup>. % 669 732078.

**IGANTZI.** Pisuak salgai berriak eta bizitzaren jartzeko moduan. % 677 425873 (Jaiotze).

**ELIZONDO.** Saskaitz Plazan pisuak salgai. 90 m<sup>2</sup>, 3 logela, sukaldea, komuna, 2 egongela, sukaldea eta balkoi itxia. % 610 516110 -678 902026

### ETXEBIZITZAK

#### 104 Errentan hartu

**BAZTAN.** Elizondoko bikote batek pisua errentan hartuko luke. % 639 526865.

### ETXEBIZITZAK

#### 105 Etxe konpartituak

### INMOBILIARIA

LEITZA: **Hiru logelako  
9 pisu interesgarri eta  
4 garaje salgai.**  
& 948 510 534 bulegoa



**BELURRA**  
**PISUAK SALGAI**

**SUNBILLA**  
- Promozioa: 83,72 m<sup>2</sup>  
188.450 €

**ELIZONDO**  
- Baxerria Iriarte karrika  
82 m<sup>2</sup>, 131.300 €

**DONEZTEBE**  
- Pisu berria: 100 m<sup>2</sup>  
231.500 €

**ARIZKUN**  
Lurak salgai,  
Jeki erri hobean.

948 450188  
638 845540

**IRUÑA.** Pisu konpartitze-ko lagun bat behar da Alde Zaharrean. Pisu handia, eguzkitsua, berogailua, igogailua. % 637 555357- 658 284857.

### GARAJEAK/LOKALAK

#### 107 Saldu

**LEITZA.** Gaztañaga taberna traspasatzen da. Sukalde berriak eta MINP proiektua egina. Ordaintzeko erraztasun handiak. % 699 361194.

### GARAJEAK/LOKALAK

#### 109 Errentan eman

**BERA.** Garajea errentan emateko, Correos ondoan. Aproposa motoak eta bizikletak uzteko. % 948 630881.

**BERA.** Garaje-plaza errentan ematen da. Euskalduna jatetxe parean, Dorrea bloketan. % 948 585 059.

### LURRAK/ORUBEAK

#### 112 Saldu

**LEITZA.** 4.000 m<sup>2</sup>ko lur eraikigarria salgai, Basakabi ondoan. % 699 361194.



**SALMENTA:**  
BERA: 3 etxebizitza berri herrigunean. Igogailua.  
BERA: Erdian pisua, 2 logela, 2 bainugela, egongela eta sukaldea. Garajea.  
BERA: Bi familiarako etxebizitza pisua salgai, 3 log., 2 bainug., egongela handia eta sukaldea. Garajea.  
BERA: 2.155 m<sup>2</sup>ko lur eraikigarria.  
BERA: 3.188 m<sup>2</sup>ko lur eremua.  
LESAKA: Famili bakarreko etxe bat edo bi eraikitzeko lur eremua, argindar eta urarekin.  
ARANTZA: 76 m<sup>2</sup>ko pisua, 3 logela, egongela, sukaldea, bainua. Trastelekua. Baratzeta. Bista onak.  
SUNBILLA: 1.100 m<sup>2</sup>ko lur eremua famili bakarreko etxebizitza egiteko.  
DONEZTEBE: Bi familiarako etxebizitza, 72 m<sup>2</sup>ko pisua eta bajera. Moldatu behar da.


**ESKARI HANDIA IZATEAGATIK, ETXEAK, PISUAK, BASERRIAK, BORDAK ETA LUR EREMUAK BEHAR DITUGU.**

Kattonberri karrika, 4  
31780 Bera. Navarra

Tel/Fax 948 630552  
info@baztango.com  
www.baztango.com

### ZERBITZUAK

#### 208 Bertzelakoak



**BORDA**  
**PLADUR LANAK**

ISOLAMENDUAK  
DEKORAZIOA  
ERABERRITZEAK  
SABAI MODULARRA

948 451 841  
bera@baztango.com  
Tel/Fax: 948 637 546  
948 637 577

kalde arduraduna eta zerbitzaria behar ditugu. Pertsona arduratsuak eta esperientzia dutenak izan daitezela. Baldintza onak. % 654 385363.

**Arkitektu teknikoa** behar da obra batean lan egiteko. Urte baterako kontratua. % 948 450188.

### MOTORRA

#### 501 Salerosketak

**Quad Yamaha Banshee** salgai, 350 cc, 2002koa, extra ugarirekin. Oso gutti erabilia, egoera hagitz onean. % 687 052867 (19:30etik aitzinera).

**Traktorea** salgai, Carraro markakoa, 60 zaldikoa, pailarekin. Prezioa: 3.000 euro. % 678 959534.

**Renault Twingo** autoa salgai, 1996. urtekoa. ITVa azaroan pasatua. % 661 140479.

**Opel Vectra DTI** autoa salgai, 122.000 kilometrorekin. Aluminiozko llantak. Prezioa adosteko. % 609 912 213.

### LANA

#### 301 Eskariak

**22 urteko mutil** euskaldun batek lan eginen luke egunean 4 edo 6 orduz, edo goizko txandan. LH mekanizatua ikasia. Kotxearekin. % 948 585059.

**Sukaldean aritzeko** emakume bat eskaintzen da. Ahal bada Bortzirietan. Badu esperientzia. % 948 637450.

### LANA

#### 302 Eskaintzak

**BERA.** Jatetxe batean su-

**MENDAUR MOTOR**  
 & 948 450333 • DONEZTEBE

**Bigarren eskuko kotxeak:**

Mitsubishi DID 3 ate automatikoa eta manuala, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 3-5 ate, Grand Vitara 3 ateko gasolina, Opel Zafira, Volkswagen Polo, Terrano II, Opel Frontera 3-5 ate, Galloper 3-5 atekoa eta Land Rover. SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

**TALLERES SANTESTEBAN**  
 & 948 450282 • DONEZTEBE

**KOTXE IA BERRIEN ESKAINTZA ZABALA (6-12 HILABETEKOAK)**

CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE GRAND TOUR, SCENIC, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE.

**BIGARREN ESKUKO KOTXEAK**

OPEL ASTRA 2.0, MEGANE COUPE 1.9TDI, SUZUKI VITARA 1.6., CITROEN XSARA 2.0 D, FORD MONDEO 1.9 D.

**ANIMALIAK**  
**602 Salerosketak**

Zerri gizona salgai, Igantzin. % 948 637078 (Juan).

12 urteko behorra salgai. Gainean ibiltzeko eta ibilaldiak egiteko aproposa. % 670 251632.

**DENETARIK**  
**701 Galdu-aurkituak**

**BERA.** Urtezaharrea biza-kur galdu dira, beagle bat eta gaztain koloreko arratoi zaurkurra. % 646 485817.

**DONEZTEBE.** Bizikleta bat aurkitu dugu. % 630 930850.

**Giltza** batzuk aurkitu dira Berako Itzea auzoan (Iparraldeakarrikan). % 948 631 168.


**ETXALARko**  
**HERRIKO ETXEA**
**HERRIKO OSTATU ETA JATETXEA ERRENTAN ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA**

Udal honek lehiaketa irekirako deia egiten du Herriko ostatu eta jatetxea errentan adjudikatzeko:

- Urteko kanona, hasierako prezio gisa: 3.720,00 euro gehi BEZA.
- Kontratazio epea: Lehiakideak eskaintzan zehaztu behar du. Gehienez ere hamar urterako izanen da eta gutxienez bortz urterako.
- Behin behineko fiantza: 600 euro.
- Aurkeztu beharreko agiriak: Baldintza Pleguan adierazten direnak.
- Proposamenak aurkezteko epea: 2007-02-14ko 14:00ak arte.
- Baldintza plegua interesatuen eskura dago Udaltxean eta Nafarroako Kontratazioaren atarian. [www.navarra.es/home\\_es/Catalogo+de+servicios/Contrataciones/Anuncios+de+licitacion.htm](http://www.navarra.es/home_es/Catalogo+de+servicios/Contrataciones/Anuncios+de+licitacion.htm)

17 erle salgai, beren altza eta guzti. % 948 601661.

**HARREMANAK**  
**801 Agurrak**

Sarako Iñaki Zumeagak urteak bete ditu urtarillaren 24an. Zorionak laneko lagunentzat, eta ea txanpainan botil haundi bat ekaritzen digun.

**DENETARIK**  
**702 Salerosketak**

Bertako haritz plantak salgai. % 678 959534.

Berogailua salgai, egur birurarekin dabilena. Tximiniarik ez du behar. % 948 637965.

**Belar idorra eta ahotza pakete ttikiak eta handiak** salgai, kalitate onekoa. Etxera igortzen da. % 943 366040-607 457004 (Dani).

**Estrenatu gabeko ekonomika berria** salgai. Merke saltzen da. % 666 818692.

**Logela** salgai, 1,05 cm-ko ohe bat, koltxoia eta somierarekin, gau-mahaia eta idaz-mahaia bere apalarekin, gaztainarekin egina. % 948 450950.

**URDAZUBIKO**  
**UDALA**
**URDAZUBIKO ESKOLA, BERE GIMNASIA GELA, OSASUN ZENTROA ETA UDALEKO ARETOAK (BULEGOA, BATZAR GELA, PASABIDEA, SARRERA ETA BAINUA) GARBITZEKO ZERBITZUAREN LIZITAZIOA.**
**XEDEA:**

- Urdazubiko Eskola, bere gimnasia gela, Osasun zentroa eta Udala-ko aretoak (Bulegoa, Batzar Gela, pasabidea, sarrera eta bainua) garbitzeko zerbitzuaren lizitazioa.

**AURREKONTUA:**

- 6.300 €.

**BALDINTZA PLEGUA:**

- interesatuen eskura egonen da Urdazubiko Udala bulegoetan.

**PROPOSAMENAK NON ETA NOIZ AURKEZTU:**

- Urdazubiko Udalaren erregistroan, anuntzio hau publikatzen denetik 8. eguna arte, 14:00 orduak arte.

Urdazubin, 2006ko abenduaren 29an  
 Alkatea, Andrés Francisco Diharassarry Orgambide.



Bai Euskarari Zozketa Bortziritan

Bortziritako Euskara Mankomunitateak Bai Euskarari Zozketa antolatua zuen 2006aren bukaeran. Zozketa abenduaren 21ean egin zen, eta 1. eta 3. sariak berehala atera ziren. 1. saria Oihan Canabal igantziarrak eskuratu zuen, Bortziriak Pilota Eskolak emandako boletoarekin (02.128 zkia); Ezpeletako Euzkadi Hotelean asteburu bat egokitu zaio. Atxaspi Hotelak emanda. 3. saria Eugenio Zelaia beratarak eskuratu zuen, Botxo Ostatuan (02.689 zkia); Zela Kirolak dendan 60 euroko erosketa bostak eskuratu du.

Zozketatik hilabete bat iraganda, **2. sariduna ez da agertu.** Hortaz, ordeko zerbakia jakinarazten dugu: **10.740 zerbakia**, Lesakako Rural Kutxak emana. Hilabete bateko epean ez bada saridunik agertzen, saria eman gabe geldituko da. Bigarren saria Igantziko La Villa ostatuan bi lagunentzako otordua da.



**Donamaria'ko Benta**  
 Erreserba bidez bokam: 948 450708

**Menu MEXIKAR GASTRONOMIKOA:** EGUNAK  
 25 euro pertsona bakoitzeko  
 Mexiko ezogutu gastronomikoki sukaldari mexikarra  
 2007-02-10  
 2007-03-10  
 2007-04-10



**ZOANSA**

MARKA GUZTIAK KONPONKETA

Banarita, 2 - Alkaiaga industrialdea  
**LESACA** (sarrera Beratik)  
 Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505



**VENTANAS ARAMBURU**

Ongizate termiko eta akustikoa  
 Aluminioa egur koloretan

Gabiria, 42 IRUN  
 Tel.: 943 62 22 57 • Fax.: 943 62 38 11


Argazki soila: 4 E. Bikoitza: 8 E. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,30€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeke, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net




**INIGO ETXEGARAI ALDABE** beratarrak urtarilaren 20an 9 urte bete ditu. Zorionak familiarien partetik eta bere aitaren ehiztari kuadrilaren partetik.



**ANDER GAMIO GONZALEZ** gazteluarrak 2 urte beteko ditu otsailaren 3an. Zorionak txikitin, Arantzako ataxi, osaba eta izebaren partetik. 2 muxu.



Lesakako **NAIARA ZOZAIAK** urteak beteko ditu otsailaren 4an. Muxu haundi bat Arantziatik, aunitz maite zaituzten Josexto eta Ainhoaren partetik.



**LUKEN URTXE-GI URRA.** Gure muttiokoak urtea bete du urtarilaren 28an. Zorionak Lesaka, Igantzi eta Sunbillako familiarien partetik. Ongi pasa!



**LUKEN URTXE-GI URRA.** Gure muttiokoak urtea bete du urtarilaren 28an. Zorionak atxa, ama eta Ninben partetik. Muxu erraldoi bat!



**IBAI ROS SALAZAR**-ek 10 urte beteko ditu. Ongi pasa eta astindu batera. 11 muxu, ama eta aitaren partetik.



**LOREA BAZTERRIKA LEGAZKUEK** 5 urte bete ditu urtarilaren 26an. Zorionak pottola, amatto, attatto, familia eta Aneren partetik.



Berako **JON PAGOLAK** 3 urte bete ditu urtarilaren 27an. Aunitz urtez, amaxi eta izebaren partetik. Muxu haundi bat



Zorionak osaba-ilobari: Gazteluko **OSKIA** eta Narbarteko **ISMAELER**i, urtarilaren 17 eta 22an urteak bete dituztelako. Segi beti bezain alaitu. Narbarte eta Gazteluko familiak.



Iturengo **ALIRIK** 18 urte bete ditu urtarilaren 20an. Zorionak eta muxu pottola pila lagunuen partetik. Gora leinomani!



**ARITZ MENTABER**i eta **XUBAN MENTABER**i 9 urte eta urte bat bete dituzte urtarilaren 31n eta 27an. Zorionak aita eta amaren partetik, bereziki zuen anaia Josu-iren partetik.



**IMANOLEK** 2 urte egin ditu urtarilaren 29an. Zorionak eta bi muxu Alaitzen partetik.



Berako **IMANOL ARANIBAR IPARRAGIR**ek bi urte bete ditu ilbeltzaren 29an. Aunitz urtez familia guztiaren partetik.



Añorgako **NAIROA AROZENAK** 4 urte bete ditu urtarilaren 24ean. Zorionak eta muxu pottola bat zure lehengusu Aialaren partetik.



**JOSEBAK** 10 urte bete ditu urtarilaren 21ean. Muxuak attato eta amatto-oren partetik. Aupa mutil, zorionak!



Zibolako **MANUEL** eta **MARITXOK** urtarilaren 19an 55 urte bete dituzte ezkondurik. Zorionak familia guztiaren partetik.



**MIKEL ZABALA ORMAZABAL**ek urteak bete du ilbeltzaren 29an. Zorionak Leitzako eta Hondarribiko familiarien partetik.



Itungo **ISIDRO** eta **LURDESEK** 25 urte beteko dituzte ezkondurik otsailaren 13an. Zorionak, guraso, seme-alaba eta gainetako familia guztiaren partetik. Egun eder bat pasa!



Zorionak **IXIDRO** eta **LURDESERI**, denbora aunitz ematen beti azindari, egun polita opa dizuegu zueri, beste hainbeste urte elkarrekin segi. Besotakoak: Peio eta Sarai.



Etxalarko **ANDONI** eta **NAIARA OTXOTeko PERUGORRIAK** 5 eta 3 urte beteko dituzte urtarilaren 23an eta otsailaren 17an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



**SERAPIO:** zorionak Serapio, otsailaren 10ean urteak beteko ditu eta, bereziki biloben partetik. Aupa ataxi, oraindik zerri aunitz hil behar dituzta eta!



**MARITXU:** zorionak Maritxuri urtarilaren 30ean, etxeko guzien, bereziki Lesakako familiarien partetik. Segi sasoiari, zerria hiltzeko behar zaitugu!



**ANE:** Zorionak otsailaren 6an urteak beteko dituzelako, zure anaia Beñat eta zure gurasoen partetik, muxu haundi bat ataxi, amaxi eta etxeko guzien partetik. Aupa preziosa, beti bezain polita zaude ta!



KLINIKA ANBUI ATORCIA BEGIETAKO MIKROKIRURGIARIAN  
OFIATIMOROLOGIA ZENTRUA

[www.luzclinic.com](http://www.luzclinic.com)

## Oftalmologiaren beste ikuspegi bat



- 1986 Begietako mikrokirurgia osoa ospitalizatu gabe
- 1990 Kirurgia errefraktagarria Laser Excimer-arekin
- 1993 Anestesia topikoaren erabilera begi-lanbroen kirurgian
- 2001 Ikusmen nekatuaren kirurgia implante egokiorrak erabiliz
- 2004 Begi-lanbroen kirurgia mikro-ebakidurekin
- 2005 Laser tratamendu pertsonalizatua Topolyzer-ekin
- 2006 Malko-bideen tratamendua mikro-endoskopiarekin

Eskiroz, 31 - B solairuartea - 31007 IRUÑA - Tfnoa: 948 199 999

Juan de la Cruz, 5 - TEKNIA Zentrua - 20300 IRUN - Tfnoa: 943 660 150

Ferme Dai Baiza, 6 - ZA Layritz II - 64500 DONIBANE LOHIZUNE - Tfnoa: (0033) 559 51 84 0 0 (FR) - 902 209 299 (SP)


IRUÑA
DONIBANE LOHIZUNE
IRUN

# Liderrak gure eskualdean

eta **Nafarroa Garaiko Mendialdean**  
dauden 111 udalerriak  
kontuan hartuta




## IRAKURLE KOPURUAK (milakoetan)




## SEXUAREN ARABERA

gizonak  
emakumeak



## ADINAREN ARABERA

14-20  
21-25  
26-35  
36-45  
46-55  
56-65  
>65



## IKASKETA MAILAREN ARABERA

Ikasketarik gabe  
Lehen ikasketak  
Lanbide Heziketa  
Batzilergoa  
Unibertsitatea



DATU  
ITURRIA:

CIES 2006  
2. azterketa aldia



otsailak 3

# JOXEINA



01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

otsailak 10

# JOSELY ANAYAK

00:30 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

otsailak 17

# MESTIZO SKA JAJA



01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

otsailak 24

# HAMLET

00:30 12€ aurretik 15€ takillan

martxoak 3

# MAKALA PRESENTS BOOM SHAKA LAKA

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

# ZOZKETA

"Ibiza" baten zozketa. Eskura itzazu zure boletoa 3:00ak baino lehen iristean. Astebururo zure sarrerakin batera.

